

2009KO EKAINAK 25

25 DE JUNIO DE 2009

ORGANO: UDAL BATZARRA

ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: OHIKOA

SESION: ORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2009KO EKAINAK 25

DIA: 25 DE JUNIO DE 2.009

HASIERA ORDUA: 19:00

HORA DE COMIENZO: 19:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.

PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK

CONCEJALES: ASISTEN

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA
Lide AMILIBIA BERGARETXE
Manuel ZUBIA ARTABE
Unai MANZISIDOR ANDONEGI
Andoni ETXANIZ OSA
Miren Nerea EPELDE AZKUE
Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA
Pilar ETXABE IRIONDO
Paloma HEREDERO NEGREDO
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ
Xabier OLAIZOLA ANTIA.

EZ DIRENAK BERTARATU:

NO ASISTEN:

Cristina FORCADA UNANUE.

IDAZKARIA: JON GIL BELTZA
SECRETARIO ACCTAL.

Alkate jaunak bilera eratutzat ematen du.

Se da por constituida la sesión por el Alcalde-Presidente.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Arratsaldeon, ea gaur bederatzirako bukatzen dugun, “Tu es petrus” entsaiatu nahiko nuke eta... egia eh!...eta bi ohar, aurrena, el domingo a las doce de la noche aquí, con eso de que es la izada de la bandera, eta San Pedro etbr... un poco de champan y tal... aquí en el Salón de Plenos bilatuko garela, egitaraua bakoitzak badaukazue San Pedroetakoa eta esandakoa ea bederatzitarako bukatzen dugun,

AURREKO BILERAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA: (2009.05.28) Aurreko azkenengo ohiko udalbatzarreko aktaren inguruan, Lide?

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Nik detailetxo bat, bostgarren orrian, hor, bat, bi, hiru, lau bostgarren lerroan tasa “64 baldin bada” jartzen du, bueno “74” da.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Oso ondo, beste norbaitek zerbait?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Nik, ez dakit eh?, garrantzia edukiko duen edo ez, baino bozkatzen dugunean erabakiak agertzen diren une guztietan, ba... PNV-ren bozkak, EA-ren bozkak, Talde Mistoaren bozkak, eta Aralarrek bozka agertzen da, nik usten dut taldea Ezker-Batua Aralar dela eta nahiz eta Lolo bakarrik egon, eta bera Aralarreko kidea izan ba... taldea Ezker-Batua Aralar da eta aktan horrela jaso beharko litzatekeelakoan nago.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Oso ondo, besterik gabe bigarren puntura pasako gara, **OGASUNA.-**

2008KO AURREKONTUKO LIKIDAZIOEN BERRI EMAN. Joseba, Ogasun batzordeburu bezala,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Arratsaldeon, guztioi. 2008ko likidazioen berri emango dugu, orain, eta dakizuen bezala hau Alkate Dekretuz onartzen da eta kontua ematea besterik ez da.

Ekainaren 9an eman genuen kontu hazienda batzordean eta gaur berriz emango dugu.

Txostenak eta banatu ziren Hazienda batzordean, eta pentsatzen dut hor edukiko dituzuela baina laburpen bat egin da txostenena, ze... txostena oso teknikoa da esango genuke formula bat dela, formula bat, eta urtero berdin egiten da eta gauza teknikoetan ez naiz sartuko, baina bueno, laburpen bat egin da dakizuen bezala likidazioa egiten da hiru aurrekontuei buruz, Udalaren aurrekontua, San Juan Egoitzakoa eta Musika Patronatukoa; Zumaia Lantzenena ez da egiten ez daukalako... aurrekontuen kontabilitatea ez duelako eramaten, bakarrik, ondare kontabilitatea eramaten du, gaur aurkeztu digun bezala, orduan Udaletxeko aurrekontuarekin hasiko naiz, Udalaren aurrekontuarekin gastuei dagokionez, txostenean ikusten denez, datua da % batz bestekoa egin da % 64,45 exekutatu dela 2008an, eta beti nola hemen begiratzen den gehien bat inbertsioen kapituluei, esan beharra dago ba... inbertsioen kapitulua % 32,92an exekutatu zela, gero pasatuko diot hitza Andoniri, pixka bat esplikatuko du inbertsio batez ere hirigintzakoak direlako ba... potoloenak nola bait esateko eta lau edo bost horko inbertsio batzuk egingo balitz ba... ia-ia % 80an geunden, baina bueno...gero berak esplikatuko du pixkat,

Diru sarrerei dagokionez, batz besteko bat egin da, baita ere baxua izan da % 58,73a izan delako eta hau gutxi gora behera esplikatuko dut zergatik izan den: alde batetik bigarren kapituluan zeharkako zergetan obrak pila bat jeitsi dira eta % 56a gutxiago, diru gutxiago jaso da,

Bestetik, laugarren kapituluan baita ere FOFIM-a Diputaziotik aurreikusitakoa baino 676mila euro gutxiago kobratu dugu,

Seigarren kapituluan, Hirigintza aprobetxamenduak bere garaian aurrekontuak egiterakoan, teknikoak esan zigutena jarri genuen, hiru zesio ziren eta ez da hiruretatik bat bera ere kobratu, orduan hor, ba.. zortzirehun eta piko mila euro horietatik ez da ezer kobratu,

Zazpigarren kapituluan, % hirua bakarrik jaso da, hor garrantzi haundia dauka Alhondegiak eta Gizarteko dirulaguntzak ez direla kobratu gutxi gora behera miloi bat euro redondeatzen, gero

Zortzigarren kapituluan ere, remanentea inkorporatu zena 2007ko aurrekontutik ez da erabili eta ez da ere erabili bederatzigarren kapituluko aurreikusten zen defizita, orduan horregatik dirusarrerei dagokionez ere ba... exekuzioa % 58a izan da.

Emaitzari dagokionez 2008ko emaitza azkenean izan da 146 mila euro aldekoa, gauza bat da emaitza aurrekontuen likidazioaren emaitza, eta

bestea da remanentea. Remanentea izango litzateke sei miloi eta bostehun eta hamazazpi mila, hori izango litzateke remanentea, baita ere kontutan hartu behar da hasieran ia-ia horrenbeste zela oker ez baldin banago, hasierako remanentea urtea hasi ginenean bost miloi eta zazpirehuneko zen, gutxi gora behera, horrek aurrekontu hontan gehitu du beste zortzirehun mila euro. Sei mila eta bostehun horietatik inkorporatuko dira 2009, bueno inkorporatu dira hobeto esan da 2009ko aurrekontuetara hiru miloi hirurehun eta hirurogeita hiru mila euro, hau esaten ari naiz ikusteko gutxi gora behera gaur egungo egoera ekonomikoa eh!, remanentea 2008ko likidazioa esan dudan bezala sei miloi erdikoa izan zen, inkorporazioak kendu hiru miloi eta hirurehun, eta aurreikusten zen defizita 2009ko aurrekontuetan; kontutan hartuta bi miloi laurehun eta hemeretziakoa geldituko litzateke remanente bat zazpirehun eta hogeita hamahiru mila eurotako.

Hori dena txostenak jartzen du, hori azkenengo orrian; gero zazpirehun eta hogeitahamahiru mila euro horietatik ere kontutan hartu behar da 2009ko aurrekontuetan ia esan digutenez, Diputazioak % 20a gutxienez emango digula horrek nahi du esan miloi eta berrehun euro gutxienez gutxiago jasoko dugula; eta egongo litzake hor ba... kontutan hartuta remanentea 2009ko aurrekontu osoak exekutatuta % ehunean eta defizita, defizit hori ere exekutatuta aurreikusita dagoena eta FOFIM-en dirua gutxiago jasota ba... geldituko litzateke laurehun eta hirurogeita sei milako defizit bat tesorerian esango genuke; hori izango litzake gaur egungo egoera.

Gero pixkat aipatzearren baita ere San Juan Egoitzako aurrekontuan, hau ia, San Juan Egoitzakoa eta Musika Patronatukoa askoz ere zenbaki txikiagoak dira, nahiz eta formula berdina erabiltzen den likidazioak egiteko, baina bueno komentatuko ditut ba... bakarrik zenbaki batzuk:

San Juan Egoitzan batz bestekoa gastuetan izan da laurogeita hamabikoa eta diru sarreretan izan da laurogeita hamabostekoa; emaitza izan da, urteko emaitza berrogeitalau mila euro alde eta remanentea gelditzen da baita ere laurehun eta laurogei mila euro eta

Musika Patronatuan gastuak izan dira % 92a exekuzioa eta diru-sarreretan % 81a. Emaitza izan da hamasei mila euro negatiboa eta remanentea hemezortzi mila euro aldekoa. Bueno nik gutxi gora behera esplikatu dut, gero txostenean esan dudan bezala gauza gehiago daude, bateren batek, zerbait nahiko balu galdetu baina Andoniri pasako diot hitza batez ere lau edo bost inbertsio pixka potoloak daudenak ba... jakiteko zer gertatu den edo batzuek segurazki edukiko dute bere arrazoia eta... Bale...

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Arratsaldeon guztioi, Josebak esan duen bezala 2008ko aurrekontuetako inbertsioetako exekuzio maila % 32,9koa izan da, baina bueno... zenbaki hots horren atzetik arrazoiak daude eta horiek dira orain adieraztera nihoanak,

Arrazoiak nagusiki dira Narrondoko paseabidean 2008an idatzi zen proiektua, eta 2008an idatzi zen proiektu horrek adierazi zigun zehatz-mehatz exekuzio kostea zein izan behar zuen edo zein izango den proiektu horren egikaritzeko.

Aurreikusiak geneuzkan 2008ko aurrekontuetan 280 mila euro lehendabiziko fasea egiteko. Kontua da, kopuru horrekin ez zuela ematen lehendabiziko fasea egiteko, baina hori ez da arrazoi nagusia 2008an Narrondoko lehendabiziko faseari heltzeko, ez heltzeko, baizik eta Diputazioarekin karretera horren titularitate aldaketa hitzartu egin behar dela, hori egitear gaude, behin bariantea bukatu eta karretera hori ba... titularitatea munizipala izateko aukera ireki denean, beraz titularitatea dugunean obra hori egiteko aukera edukiko dugu.

Lan hau egikaritu ahal izateko 2009ko aurrekontuetan 282 mila euro gehiago aurreikusi dira, eta beraz, lehendabiziko fase hau egiteko 562 mila euro bideratuko dira, aurten. Hau Narrondoko paseabideari dagokionez,

Basustako reurbanizazioa ia ehun mila euro zeuden 2008an eta 2009ra luzatu ziren, kontua da, urbanizazio hau egiteko Zumaia Lantzen, bertan egiten ari den eta bukatzeaz dagoen etxebizitza edo baserri bat bukatzea komenigarria zela reurbanizazio edo birgaitze hau hasi aurretik, lan horiek bukatzeaz daude, urbanizazioa hasia da, jada, eta urbanizazio bera ere bukatzeaz dago, beraz, ehun mila euro hauek joan den urtetik luzatu dira eta aurten exekutatu dira.

Anbulategiko urbanizazioan 576 mila bat euro, edo hor nonbait, usten dut, 546 mila euro zeuden bideratuak joan den urteko aurrekontutan, baina, kopuru hauek lehendabiziko fasea egikaritzea ahalbidetzen zuten, udaletik lortu diren dirulaguntza batzuk direla medio, bertako bigarren eta hirugarrenengo fasea ere, aurten egikaritu ahal izatea lortu da eta komenigarria eta beharrezkoa ikusi genuen hiru faseak batera esleitu eta hiru fasetako obrak batera egitea, beraz, exekuzioan eman zitezkeen kudeaketa guztiak eta exekuzioa bera egokiago egin ahal izateko obra guztia batera hasi eta bukatzea pentsatu zen. Obra guzti horiek hasiak dira jada, bai aurrenengo fasea, bai bigarrena eta baita hirugarrena ere eta aurten bertan bukatuko dira, hori ambulategiko urbanizazioarekin.

Jadarre, 2008an hasi zen, baina ez zen guztiz bukatu 2008an lan hau, bukatzeaz da, ia bukatua dago, soilik falta dena da Iberdrolak kontadorea jartzea bertako zerbitzu guztiak martxan jarri ahal izateko, Iberdrolaren eskuetan gaudela esan genezake kasu honetan, baino Jadarrerako

aurreikusiak zeuden kopuru guztiak, honezkero exekutatu dira eta erabiliak daude eta aurten bigarrenko faseari ekingo diogu eta bigarrenko fasea egingo da.

Alhondegia, berriz, azaroan alhondegia esleitzeko intentzioarekin genbiltzan eta pleguak publikatu behar genituen, baina kontua da, azaroan bertan ere beste lan karga batzuk etorri zitzaizkigula, zeinak eta Gobernu Zentralak mahai gainean jarri zituen dirulaguntza horiek lortzeko aukera ireki zitzaigun eta alhondegiko esleipena alde batera utzi genuen, dirulaguntza hauek lortzera zentratu genuen bulegoa. Zorionez... zorionez edo kasualitatez, azkenean ez da gaizki etorri obra hau atzeratzea, zeren atzeratu izan ez baldin bagenu eta obrak esleituak izango bagenituen, jaso genuen sententzia obra zuzendaritza anulatzen zuena izango zuen eragin politikoa edo eragin ekonomikoa ba... garrantzitsua izango zen udalarentzako eta serioa, hau atzeratu zen beste dirulaguntza batzuk lortze bidean, atzeratu ondoren sententzia etorri zen, sententzi hori jarri zizkigun zailtasunak jada gainditzear gaude, zeren, esleipena ba... eginak daude guztiak, eta lan hauen probisionalki bada ere, eta lan hauen hasiera ba... azkenean aurtengo irailean nahi dugu lana hasi eta urtebeteko plazoan ba... alhondegiko lanak bukatuak egongo direla diote, behintzat, eskeini diren exekuzio plazoak eta beraz alhondegia ba... bueno beste lan batzuetara bideratu genituen esfuertzoak, Estatuak mahai gainean jartzen zituen dirulaguntzak lortzera bideratu ziren esfuertzoak, zorionez, lortu ziren eta tarte horretan etorri zitzaigun sententzi bat, non lanketa berri batzuk sortu zizkigun.

Beraz, joan den urtean egin ez zirenak, aurten egingo dira eta joan den urtean ez da % 32a gure gustoko exekuzio maila, baino arrazoiak hauek dira, aurten joan den urtean egin ez zirenak eta aurten egin behar ditugunak ere martxan ditugu: Jadarreko bigarrenko fasea martxan jarriko da, Narrondoren lehen fasea ere aurten jarriko da martxan,

Alhondegiko lanak ere aurten hasi eta hurrengo urtean bukatzea aurreikusten da,

Anbulategiko urbanizazioak, hiru faseak aurten martxan daude jada,

Aita Mariko aparkaleku lanak ere hasiak daude,

Aita Mari herri eskolako aterpea 550 m²ko aterpea ere martxan dago jada,

Artadiko ur-deposito berria egiteko lanak ere hasi dira,

Oikiako auzoak eta poligono industrialak behar dituen ur-hornidura ahalbidetuko duen obra ere martxan dago,

Bidasoa kalean ere lanak ere egiten ari gara, eta bidegorriak meioratzeko, bidegorrien sareak meioratzeko lanak ere prestatuak ditugu eta aurten bertan martxan jarriko ditugu.

Joan den urtean koyuntura berak ez gintuen gehiegi lagundu inbertsio guztiak martxan jartzeko, oraindik ez daukagu egoera ona gauza guzti hauek martxan jartzeko baino asko, asko dira martxan jarri direnak,

akordatu behar gara edo akordatarazi beharko genuke guk behintzat joan den urteko egoera berezia, 2007ko abenduan kontuhartzailea joan zen, aurrekontuen lanketaren erdi-erdian ginela, eta aurrekontuak onartu eta hilabete gutxitara, uztailean, idazkaririk gabe geratu ginen, hala ere, lan asko nik usten dut martxan dagoela jada, lan asko jartzen ari garela martxan eta joan den urtean portzentaia ez baldin bazen izan egokia, ona, arrazoiak mahai gainean jarri ditut zergatik, zergatik edo zeintzuk izan diren, aurten berriz nik usten dut martxan dagoen lan bolumena, obra bolumena inbertsioak egiten ari garela behintzat, nabarmen usten duela eta joan den urtetik luzatu diren kopuruak edo ekarri diren kopuru guzti horiek, martxan daude eta aurten bertan joan den urtean ezin izan zirenak, aurten bertan exekutatuko dira,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: M. Eugenia,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Ez, Bakarrik esan nahi nuen gauza bat ahaztu egin zaidana, inbertsioetan partida handiena lur erosketarena miloia ehun eta hogeita mila euro zegoen, baina baita ere esan beharra dago hirigintza aprobetxamenduko partida, seigarren kapitulukoa ez kobratzean, diru hori ezin dela erabili, zeren jarri genuen aurrekontuetan diru sarreretan zortzirehun eta piko mila euro eta hori bakarrik erabil daiteke horretarako, lur erosketarako, erosketetarako, eta nola ez diren kobratu ezin dela erabili, besterik ez,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Oso ondo. PNV, Lide, zeozer esateko?, M. Eugeniak,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Arratsaldeon guztioi, Josebak eman dizkigu azalpen orokor batzuk eta Andonik zenbait arrazoi inbertsio inportanteenak ez egitearen arrazoiak eta horren inguruan hitz bat bakarrik etortzen zait burura eta da aitzakiak.

Aitzakiak beti egoten direla, hori egia da. Bueno atzo aztertzen jardun genuen txostena, geuk, udal taldeak bueno Eusko Alderdi Jeltzaileko udal taldeak, zinegotziok, eta lan hontan Asier Esnalen laguntza izan genuen, Asier Esnal jakingo duzutenez urte luzetan izan zen udaletxe hontako Hazienda batzordeburu eta horren ondorio batzuk komentatuko ditugu:

Hasteko sarrera arruntari dagozkionak 77.387 euro gehiago, gutxiago barkatu, lortuko dituzue % 0,73. Bueno ba... guri gertatzen ez zitzaigun bezala igoerak ere izan dituzue sarreretan, batez ere kapitulu bata eta kapitulu hiruan, zuzeneko zergak eta tasetan.

Guri asko kritikitzen zeniguten hori, baina zuek berdina egin duzue, alegia, orduko zuen arrazoiari jarraituz aurreikusita zenezukaten sarrera guztiak ez

zenituzten agerian jarri aurrekontuak aurkezterakoan, hori bai, alde bat badago, zuei neurri handiagoan gertatu zaizue hori, guri, gertatzen zitzaiguna baino.

Bestalde, udalak kontralatzan ez dituen zergetan berriz, hau da, Foru Aldundiak banatzen duen FOFIM-a eta eraikuntzaren gaineko zergetan porrota nabarmena izan duzue 2008an, baina 2008ko aurrekontua onartu zenerako 2008ko martxoan oker ez baldin banago, jada, somatzen zen zerga bilketetan beherakada nabarmena emango zela eta somatzen zen eraikuntzak izango zuen krisi larria, ordurako alarma gorri guztiak piztuta zeuden eta oker ez bagaude, guk abisu hori ere pasa genuen, gainera sarrera arrunten puzte artifizial honek oinarri errealik gabeko puzte honek eragina sortu du gastu arruntaren gainean; gastu arrunta igo egin da eta neurri gabe igo egin da, inolaz ere ez da kontutan hartu edozein aurrekontu egiterakoan oinarritzko baldintza izaten den printzipioa, hau da, ezin dela, ez dela inolaz ere gastu arrunta kontsolidatu sarrera arrunta ez ohikotan oinarrituta, ez ohiko sarrerak ezin dezakete finantziatu kontsolidatzen den gastu arrunta eta horren ildotik 2008an obra zergak eta FOFIM-a erori egiten dira baina era berean gastu arrunta kontsolidatu egiten da, eta horrek dinamika ezin beltzago bat markatzen du udal hontan hurrengo aurrekontuetan gertatuko denarentzat eta zoritxarrez ziur gaude honen inguruan orain bezala datozen urteetan ere hitzegin beharko dugula ikusita udal ekonomiaren ratioak nola dihoazten.

Sarreretan ematen den igoerarik handiena sarrera patrimonialean ematen da % 188ko igoera, sarrera igoera hori ikusteak bere horretan eta bestelako analisirik gabe ba... gauza ona ematen du, kontua da,

Zergatik edo nondik sortzen da sarrera gehikuntza hori?

Ba... horren iturria dago finantza sarreretan. Finantza sarreretan 325 mila euro baino gehiago izan ditu udal honek 2008an.

Eta zer dira Finantza sarrerak? Ba.. finantza sarrerak dira, udal honek mugitu gabe, inbertitu gabe, zerbitzuetan gastatu gabe, ezer egin gabe, hau da, kudeatu gabe, bankuetxetan eta kutxetan depositotan dituen dirutzat ematen dituen etekinak. Jakin, dakigunez majina bat aldiz esan diguzuelako egungo udal gobernua ezkertiarra dela zeharo, ezin dezakegu pentsatu deposito horiek dauzkazutenik bankuetxeak horiekin etekin ekonomikoak atera ditzaten? eta hori arrazoia ezin izan delarik;

Zein da arrazoia?

Ez duzutela asmatzen nola gastatu; ez duzutela asmatzen nola inbertitu, eta azkenean horrek oker zuzena eta nabarmena dakarkio, ez gutako bakoitzari, ez etxe honi, baizik eta herriari.

Kontua da kalkulu bat egin dugula, batz besteko bat pentsatu genuen iaz tipoak, interes tipoak zenbatean egongo ziren eta kalkulaturik % 5ean egongo zirela batz bestean, ateratzen zaigun diru kopurua, hau da, udalaren jabetza den dirutza udaletxe, barkatu, bankuetxetan dagoena edo

egon dena kalkulaturaz 6,4 miloi euro ematen dizkigu; eta... horrek ematen du udalaren kudeaketa gaitasunaren maila.

Bestalde, kapitalezko sarrerak ditugu eta kapitalezko sarrerak aztertuz beste behin ere nabarmentzen dena da kudeaketarako gaitasun falta. Josebak aipatu ditu 2007ko eta 2008ko partidak izartu programaren partidak ez dira gauzatu 721 mila eurotan. Alhondiga eraberritzeko dirulaguntza bezala aurreikusita zegoen 200 mila euroko partida hutsaren pareko geratu da, ezerrez.

Bestalde, Puntanuetatik, Artaditik eta Ardantzabidetik kobratu beharreko legezko zesioen kopuruak 845.712 euro ez dira kobratu, eta

Zer esan nahi du horrek? Ba... horrek esan nahi duena da Odieta, Beheko plazako programa eta proiektu guztien atzerapena ikaragarria dela.

Horrek esan nahi duena da Alhondegiaren obran atzerapena ikaragarria dela;

Horrek esan nahi duena da udal honek berea zuen etxe publikoen sustapen eta eraikitzen politikak atzerapen ikaragarria duela edo

Akaso ez da atzerapena eta besterik gabe etxe publiko sustapen politika bertan behera geratu da? Hau da, dagoeneko ez dago?

Diru horiek ez kobratzeak baita Josebak azken aipamena aipatu duen bezala; azken aipamenean berarekin dakarrena da, noski, ezin izan dela gauzatu nahita ere lur publikoa erosteko zegoen partida, baina ondorio konkretu eta larri hauetatik haratago joan da, nola da posible sustapen pribatuak aurrera daramatzen exekuzio urbanistikoetatik udalak kobratu beharreko diruak, ez kobratu izana. Eta ez naiz ari Puntanuetako etxeetatik kobratzea espero zenari buruz, ez dakit nola dagoen, ez dakit aurrera dihoan ere, programa edo proiektu hori, baina Ardantzabideko konbenioen arabera lotuta zeuden eta baldintzatuta, epez, promotoreak ordaindu beharreko diruak. Ikusi, ikusten ditugu Ardantzabideko zenbait etxe, ez bat, ez bi, gehiago, eta bertako urbanizazioa ere aurrera dihoa, aldiz, inondik ere ikusten ez duguna da ba... horiek egiteagatik udalari bertako promotoreak ordaindu beharreko diru kopuruaren sarrera. Berdin Inmobiliaria Orioren promozioarekin esan dezakegu. Eta gure galdera da

Zein da kontu honek duen izena? Hitz batetan nola definitu daiteke.

Bestalde, 2008ko presupuestoan hasierako aurrekontuan 2.017.000 eurotako kreditua jarri zenuten kontuak kuadratzeko eta gure galdera orain ikusita likidazioa da

Zertarako jarri zenuten kopuru hori?

Inbertsio asko egin asmo zenutela, adierazteko?

Aurrekontua, artifizialki puzteko?

Aurrekontuari baietzko botua eman ziotenak, pozik, ikusteko?

Azkenean ezerrez, azkenean ez da behar izan inolako krediturik, nola beharko zen ba?

Sei miloi t´erdiko dirutzak bankuetan geldirik egon da.

2009rako aurrekontuetan ere beste bi miloi t´erdi ia.-ia eurotako kreditua jarri duzute, 2009ko aurrekontuaren exekuzio maila nola dagoen ikusita eta ekainean gaude, ikusita inbertsioen exekuzio maila % 8,4 eskas bat besterik ez dela, gure ustetan 2009an ere ez duzute beharrik izango kreditu horren eske inora joateko.

Gastu arruntari dagokionez, ez da ez bakarrik ez zaretela gai izan exekutatzeko inbertsioak, ez da gastu arrunta ere ez duzute behar bezala exekutatu. Exekuzio maila %90era ez da ailegatu, hau da, aurrekontuetan zeneukatena baino miloi bat euro gutxiago exekutatu duzute. Gu geundenean, horretan behintzat klabatzen genuen eta % 93k exekuzio maila iristen ginen eta batez ere aurrengo kapitulari dagokionez, iaz horrelako kritikak eta komentarioak egin genituenean beste erantzun batzuen artean jaso genuena izan zen, zuek ez duzutela portlanetan inbertitzen, zuek pertsonetan eta langileetan inbertitzen duzutela baina es ke oraingo honetan ez da horretan ere; zeren aurrengo kapitularako aurreikusita zeneukazuten diruetatik 149 mila euro ere gastatu gabe geratu zaizkizue eta horrek bere alderdi positiboa izan du, ze... nahi ez da gutxienez horrekin ba... lortu duzute aurrekontuaren hasierako parametroak, nola baitan hobetzea.

Kapital gastuari dagokionez, lotsagarria, lehenago esan dugun bezala lotsagarri inbertsioen exekuzio maila. 2008an heren bat ere ez da egin ere. Eta hori nabarmena da. Ez daukagu zertan interpretatu beharrik zenbakien arabera, ze... kaleko edozeinek daki hori, eta,

Inkorporatu nahi dituzuen kreditu ia guztiak, inbertsioak dira; eta dira 3.363.000 euro. Horiek inkorporatu ezker, oraintxe Andonik komentatu duen bezala, 2009rako aurreikusita aurrekontuetan agertzen diren 4.300.000 euro gehituko zitzaizkion, guztira 7.600.000 eurotako inbertsio partidak osatuz, galdera da noiz egitekotan? Ekainean baigau, orain artean gai izan ez garena, sei hilabetetan bider hiru akaso egin beharko dugu. Eta gainera hortaz aparte, inkorporatzen dituzuen remanentetaz aparte beste hiru miloi euro baino gehiago remanente huts bezala gordetzeko asmoa duzute, hau da, superabit “puro y duro”, eta ezingo duzutena esan da superabit hori 2009ko zuloa estaltzeko erabiliko duzutenik, ze... 2009ko zuloa exekuzio mailaren gabezia bere kabuz estaliko baida.

Total “cuadro” nahiko grafiko bat egoten da balorazioak egiterakoan aurrekontu exekuzio mailari dagokionez, exekuzio maila altua lortzen denean eta gaineratik superabita lortzen direnean, benetan, oso ona izaten da.

Exekuzio maila altua izan da, defizitak izaten direnean, tira, tira, ona, azken finean gauzak egiteko baigau.

Exekuzio maila txikia denean eta superabita lortzen denean hori txarra da eta bueno,

Exekuzio maila txikia izanik defizitak baleude, hori da gertatu daitekeen konturik okerrena.

Zumaiako udalak ez ditu exekutatzen bere eginbeharrekoak,

Zumaiako udalak dirutza ikaragarriak gordetzen ditu bankuetxetan interesak sortzen,

Zumaiako udalak ez ditu ez udalaren ez beraz Zumaiar guztien interesak defendatzen eta inbertsioetarako berez diren, izan diren diru guzti horiek, likidazioak eginaz, eta beste kontu batzuetara aplikatuz, gastu arrunta finantziatzeko erabiltzen duzute eta horrek kiebrara generamatza, eta hori da guk 2008ko likidazioaren inguruan egiten dugun balorazioa,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Emiliano,

Sr.: EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ.- Primero lo que cabría es que de acuerdo con lo que desarrollamos en la Comisión de Hacienda del otro día y digamos tal y como está escrito en el punto que estamos, no sé, pregunto si la liquidación de cuentas necesita dictamen y por lo tanto aprobación en pleno? Lo que es la presentación de las cuentas si necesita dictamen y aprobación en pleno?, lo pregunto porque no lo sé, Por eso lo preguntaba, no por otra cosa, o sea, no estoy diciendo que lo estoy haciendo mal, sino lo pregunto por eso.

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Emiliano, la liquidación sólo, perdona eh?, solamente hay que dar cuenta tanto en la Comisión como en el Pleno.

Otra cosa es la cuenta general que sí hay que dictaminar y hay que llevar al Pleno.

Sr. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ.: De acuerdo, solamente era la pregunta, me parece bien.

Pues entonces pasando de ese tema, yo llevo de alguna manera un tiempo en la cual no me cuadra mucho las cosas, y últimamente con lo que se presentó en Hacienda el otro día, pues menos aún y trataré de explicarme.

Hay en concreto podríamos decir tres cosas como mínimo que son las que no me cuadran, la una llevamos dos presupuestos con presentación de los mismos con un déficit presupuestario estimado que en el caso del año pasado no se ha llevado a cabo la petición de crédito y este año, pues, me figuro que tampoco debido al nivel de gasto que se va llevando pues no

solamente no se va a pedir sino que nos sobrar  como ha pasado el a o pasado.

Pero no es ese el tema, el tema es que con el ingreso de cuentas, en teor a, o la realidad de lo que tiene el Ayuntamiento en los bancos, pues creo que hubiera sido el momento m s id neo para hacer uso de ese dinero y no tener que acudir a cr dito. No ha sido necesario acudir a cr dito debido a que la gesti n para m  muy baja, muy deficitaria, ha possibilitado que no solo no haya que acudir al cr dito en el tema de las inversiones, sino que a n se genere remanente, por lo tanto, por eso digo que la gesti n deficitaria se la... vista como se la quiera vestir;   se d  las excusas que se quieran dar la gesti n sigue siendo en ese caso deficitaria, porque estamos hablando un 32% el a o pasado y  ste la verdad que al paso que vamos, entrar a en el otro tema de la que no me cuadra, no?

Se presenta un remanente de seis millones y pico de euros. Bien, si no se han gastado ah  est n, Eso no quiere decir que haya habido una buena gesti n, sino todo lo contrario, una gesti n deficitaria que no ha sido capaz de gastar aquello que estaba previsto gastar, pero encima de eso en la misma hoja que se nos presenta el otro d a en la Comisi n de Hacienda nos quedan seis meses, si yo no calculo mal, de junio a diciembre, el verano est  por medio, y en el remate de esa presentaci n de Hacienda de los 6.400.000 euros que tenemos de remanente en el mejor de los casos nos sobrar an 700 y pico mil euros seg n esa misma hoja que se present  el otro d a en Hacienda y a m  lo que no me cuadra es que si en dos a os no hemos hecho m s que crear remanente por falta de gesti n, vuelvo a decir   por falta de gasto, como lo quer is llamar; en seis meses con el verano por medio nos vamos a gastar casi cinco millones de euros?

Es que al nivel de gasto que se tiene que hacer diariamente es que me resulta imposible comprender c mo eso va a ser as , en primer lugar por una raz n muy sencilla porque las  nicas obras con cargo al Ayuntamiento si mal no recuerdo, salvo las que se est n haciendo con el programa de Zapatero y las que est  haciendo Zumaia Lantzen, creo si mal no lo recuerdo, me correg s, ser an las del proyecto de la Alh ndiga que previsiblemente se iniciar a en Septiembre en caso de que se inicie y que solamente llevar a un coste global de todo  l de dos millones y medio.

Si solamente ese supone dos millones y medio pero va a tener s lo tres meses de ejecuci n en lo que queda de a o, la verdad es que no alcanzo a ver donde se puede gastar ese dinero para quedar solo ese remanente.

Entonces creo que esa presentaci n, para m ., fue una pretensi n de alguna forma de cubrir la gesti n que no se hab a ejecutado o que no se ha ejecutado hasta ahora. Pero es que eso no es lo que se busca en ning n momento, sino las cuentas son las que son. No se han gastado, est n ah . Lo que hace falta es lo que ha comentado antes Andoni que podemos estar de acuerdo o no, es por qu  no se ha gastado, pero no pretender que nos

creamos que en seis meses con verano de por medio, nos vamos a gastar lo que no nos hemos gastado en dos años. Porque eso es prácticamente imposible.

En principio, de todas las maneras, como no va a ser uno negativo del todo, pues hoy lo que sí os puedo dar es una buena noticia, que el problema del FOFIM ha quedado más o menos resuelto, yo creo que resuelto en Juntas Generales y se garantiza a partir de ya y tanto y cuanto dure esta situación de inestabilidad o de precariedad que sobre la base de la liquidación en base al Tribunal de Cuentas del 2008, los Ayuntamientos solo verían mermado su ingreso cuando sobre esa base haya una diferencia del 5% no habría intervención, si la hay mayor del 5% la diferencia sería asumida en este caso por la Diputación, el Gobierno y los Ayuntamientos de la manera en que cada uno entra a participar con lo que le corresponde a cada uno en el tema del reparto presupuestario que existe de acuerdo con la Ley de Territorios Históricos, que es el 70,04 al Gobierno Vasco y del 30% 29 y algo de lo que queda el 57% es para los Ayuntamientos, el 53% perdón y el 47% a Diputación, de la manera que se garantizaría siempre entre un 5 y un 7 como mucho la rebaja que pudiera tener en una situación deficitaria.

Si esa situación no se dá y hay un mayor ingreso, no se toma eso en cuenta solamente se toma para evitar la merma de ingreso por parte de los Ayuntamientos de la manera que se le garantice un ingreso mínimo del FOFIM que va a estar lógicamente en el orden que se realicen las cuentas establecido en "X" la cantidad que salga. Entonces esa es una buena noticia porque por lo menos dará estabilidad presupuestaria de cara al 2010, 2011 y posiblemente a lo mejor incluso más tiempo, no? O sea, que quitemos un poco la parte negativa de lo que he estado hablando hasta ahora, con esa noticia que es importante, pero de todas las maneras, repito creo que en una situación en la cual estamos ahora con una crisis tremenda donde los Ayuntamientos se les ha pedido y por eso se hizo el Plan Especial del Estado para conseguir, digamos, inversión y crear empleo que el Ayuntamiento de Zumaia precisamente por su escasa o nula gestión consiga remanente sobre aquello que se iba a invertir, no solamente no se ha creado empleo sino que no se han ejecutado las obras que hubieran posibilitado incluso no en el momento solo de la ejecución sino en un futuro, pues empleo o al menos otro tipo de actividad o riqueza incluso dentro de lo que es el Patrimonio de Zumaia, por lo tanto, sintiéndolo mucho desde luego para nosotros es totalmente negativa esa cuenta de liquidación presupuestaria para el 2008 y mucho nos tememos que prácticamente podíamos repetir este mismo discurso si no cambian mucho las cosas en el 2009, solo cambiando la fecha del año,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aralar,

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Esan pare bat puntu bakarrik, gogoratzen naiz lehengo urtean, pleno honetan ere likidazioen kontuan zenean hitz egiten genuenean inbertsioak oso baxuak zeudela, iazko urtetan esaten ari naiz, eta aurten ere ikusten dugula % 33a bakarrik exekutatu dela.

Hala ere aurten beste puntu bati eman nahi nioke nik garrantzia, izan ere diru sarrerak oso baxuak izan dira, hau da, jasotzea espero zenaren % 58a jaso baita. Nahiz eta jakin jaso behar ziren diru sarrera asko Diputazioak eman behar zuen dirua dela, udal gobernua kontuan izan beharko duela, diru sarrera jeitsiera hau, pentsatzen dugu, oso arriskutsua baita.

Zuk, aurrekontu bat egiterakoan kalkulatu badituzu hemezortzi miloi euro jasoko dituzula eta azkenean hamar miloi jasotzen badituzu, ba... oso zaila da aurrekontu horiek betearaztea. Egoera honek eraman gaitu, azkenean, inbertsioen % 32a exekutatu defizit bat izatera, M. Eugeniak esan duen bezala, normala den bezala, hemezortzi milioekin egiten baduzu aurrekontu bat eta azkenean hamar miloi jasotzen badituzu, ikusten den bezala % 32a exekutatu ere defizita ematen du, beraz, % ehuna exekutatu bazen ba... defizita askoz ere handiagoa izango zen, beraz, pentsatzen dugu oso garrantzitsua dela diru sarrera horiek, denak, kontuan hartzea zenbatekoak izango diren, bestela zaila izango baita aurrekontuak betearaztea, besterik gabe,

ALKATE-LEHENDAKARIA.. Bueno gure aldetik, M. Eugenia garbi dago, komunikabideei begira egindako diskurtso bat egin duzula eta pentsatzen dut hemendik eta egun gutxitara laister azalduko dela nonbaiten; eta hori hemendik gutxira, ba...bai Diario Vascon edo nonbaiten nota de prensa bat bezala eta bueno gure aktuazioa lotsagarria izan baldin bada, gutxienez, zuena bezain lotsagarria eh! Horrelako terminoak erabiltzen hasita guk ere erabili ditzakegulako Kapital transferentzietan gure aktuazioa lotsagarria izan dela, ba... zuena bezain lotsagarria.

Bigarren, ez ditugula Zumaiko udalak, ez dituela herritarren interesak defenditzen, ba... ez ditugu defendituko ziur aski zuek defenditu ez dituzuen bezalaxe. Gutxienez termino horiek erabiltzen baldin badira, guk ere erabiltzeko eskubide berbera izango dugu. Zergatik? Eta esan nion eske udalak Ardantzabiden ez ditu eskuratu, eskuratu behar zituen diru sarrerak etbr. eta gure aktuazioa ez da behar bezalako eta pixkat...ez duzue esan baina ematen zuen arduragabeki jokatzeko ari ote ginaren seinale, ez? Gogoratzen dizut Torreberriren gaia, Zumaia Lantzeneri badagokio ere, eta Ardantzabideren gaia, alegia, Torreberriren hitzarmena, Torreagaren barkatu, hitzarmena eta Ardantzabideren hitzarmena zuek sinatu zenutela.

Eta gaur egun pelota eginda baldin badago izan da zuek iragarri ez zenutelako bere garaian krisi ekonomiko bat etorriko zela, etorri den krisi ekonomikoa eta beraz buelta eman ezinik gabiltzalako.

Hori bai guk herritarren interesak ez ditugu defenditzen, baina zuek itxura denez bere garaian defenditzen zenituzten Zumaia Lantzenek 3,8 miloi euro jaso ezin dituenen eta Zumaiako herriak Frontoi bat egin da ikusi ezin duenean zuek egindako hitzarmen urbanístiko baten ondorioz eta ez gure gestioaren ondorioz, baizik eta zuek sinatutako gestioaren ondorioz.

Beste gestio bat, itxura denez gaizki egin zenutena eta era batera dator, pixkat Emilianok aipatutako gaiarekin bat, Alhondegia, eta Emilianok arrazoia du, aurten Alhondegia nahi baino beranduago hasiko dugu, eta pentsatzen dugu, usten dugu eta nahi dugu eta gauza guztiak hala esaten dute irailean hasiko dela. Egia da guk 2008. urtean aurreikusi genuela lehenago hasiko zela baina hemen ere berriz ez guk esan da, baizik eta Auzitegi batek esan duelako plegu batzuk itxura denez gaizki eginak zeuden eta haren ondorioz, -haren ondorioz-, berriz ere gauza atzeratu egin zaigu, guri gaur egun kudeatzen ari garenoi eta horren ondorioz, esan bezala, eta lehen Andonik esan duen bezala, eskerrak ez genuen dagoeneko adjudikatu, ze... bestela ondorioak latzagoak ekonomikoak eta horri buruz hitzegiten ari gara gaur okerragoak izango zirelako, eskerrak ez genuen adjudikatu izan ere haren ondorioz berriz ere "Dirección de Obra" delakoa konkurtsora atera behar izan dugulako eta esan dudan bezala dagoeneko lanak irailean hasiko direlako,

Nik besterik gabe, bigarren turno bat irekiko dut, eta bigarren turno hontan Andonik hitza eskatu dit, repartitu zuen turnoa, baino ez dut nahi pentsatzerik Talde Mistoak doblea daukanik, eh? Bueno...

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Hemen argi dagoena da, egoera batean edo bestean, biak ere, guztiz kontrakoak direnak, hau da aurrekontuak onartzen dira defizit batekin, paperean plasmitzen da, gero ez dugu exekutatzeko, hori arrazoia eta ez daukat dudarik. Emaitza hauek guretzat ez direla onak, dudarik gabe, baina aurrekontuak onartzen direnean defizit bat dago leporatzen zaigu kiebra teknikan gaudela, gero emaitzak kalkulatu dira urte bukaeran, bueno, hurrengo urtean, eta behin baino gehiagotan entzun diot Emilianori ere ba... udaletxe hau izango dela Euskal Herriko edo munduko aberatzeena, sei miloiko remanentearekin etbr... orduan, bat edo bestearekin edo erdikoa seguru zerbait egongo dela, gero

Beste bi gauzatxo, Gastu arruntean nominak eta bai ... pare bat partida balantzean daude exekutatu gabe, baina konturatzen bazarete beste programetan nominetan, aurreikusitakoa baino gehigo gastatu da, eta nik hori galdetu izan dut kontuhartzailatza eta esan didate partida binkulanteak direla eta itxuraz partida horretatik ba... hor gastatu behar zena bestetik

erabili ahal dela, orduan ez da erreala nahiz eta hor ez den azaltzen exekutatuta ezerrez, ez da hori guztiz erreala, ez dakit zenbateraino egongo den exekutatuta baina... hori alde batetik

Eta depositoena, Kutxan eta Caja Laboralean, ¡uy! Banketxeetan dagoen dirua etbr.. dudarik gabe izan dela 288a gehiago baino hori da beti gertatu dena, ikusten baduzue likidazio guztiak hemen egon direnak, ez dago izango 288, baina bat okurritu zait begiratzea zuek egindako azkena, 2006koa eta 177a azaltzen da, eta klaro bere logika dauka, aurreikusten badugu defizit bat eta gero ez badugu diru hori gastatzen, ba... klaro interesak gero eta gehiago dira, noski, eta orduan ere segurazki berdin izango zen proportzioa gehiago edo gutxiago izan. Esan dudan bezala azkenengoan 2006koan ere hori azaltzen da.

Eta gero konturatzen naiz egoera ekonomikoa azaldu dudanean oraingoa, Emilianok ez didala ulertu, ze... esan du sei mila... sei miloi erdiko remanentea dagoela eta gero egoera bukatzen da.... bueno sei mila eta.... sei miloi t´erdi remanente horretatik inkorporatu kredituak eta 2009ko defizita kendu eta gelditzen dira 700mila euro, baino hori ez da -en el mejor de los casos-, baizik -en el peor-; hori izango litzateke 2009ko aurrekontua osoa exekutatuta % ehunean defizit dena eskatuta, mailegua eskatuta, o sea mailegu osoa eskatuta, eta hala ere geldituko litzateke 700 mila euro, hori da kasu okerrean, ez hoberenean, eh?

Bueno el asunto es que has dicho - en el peor de los casos- que habría 700 mil euros, pero no es el peor -o has dicho en el mejor- pero eso sería en el peor de los casos eso es una vez si es que se ejecutara el 2009 al 100% que ya sabemos que no, y se hiciera necesario pedir el préstamo de los dos millones cuatrocientos que está previsto, en ese caso sí que quedaría 700 mil, pero eso es -en el peor de los casos-, que para mí sería el mejor, pero bueno, para mí personalmente sería el mejor, por lo menos y para el Gobierno también pero bueno y nada mas,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Andoni, labur-labur

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Nik komentatu nahiko nuke, galdera batzuk egin direlako noiz egingo diren lanak eta noiz egingo diren inbertsioak galdetu da, eta bueno oposizioa bere lana eginez, Gobernuaren gestioa ba... modu negatibo batean baloratu du eta egiten direnak eta egiten ez direnak eta gestiorako inongo kapazitaterik ez daukagula eta bueno diskurtso horrekin ia hilabeteak eta hilabeteak daramazkigu baina bueno, nik behintzat beroiek diskurtso negatiboan zentratu nahi baldin bagaituzte ere, ba... nik pentsatzen dut diskurtso positiboa egiteko aukera ere eduki badaukagula. Lehen ba... bueno Josebak hitza eman da, nik Hirigintzan

inbertsioek joan den urtean eduki zuten bilakaera eta aurten edukiko duena esplikatu dut.

Ez dut aitzakia bakarra jarri, nahiz eta PNV-ko ordezkaria eta Alderdi Sozialistako ordezkaria ados jarri diren, batek “aitzakiak” hitza erabili du, eta besteak “excusas”. Ez dira eskusak, errealitateak dira, gustatuko zaizkigu gehiago ala gutxiago, irudituko zaizkigu justifikatzen dutela edo ez, baino errealitateak dira jarri ditudan guztiak, eta gure gestio gabeziagatik ez guztiz kontrakoagatik, zergatik berriz ere gogorarazi behar dut, joan den urtea kudeatzea ez da erraza esan inondik inora.

Joan den urtean kontuhartzaile bati erreleboa eman behar izatea, ez da erraza izan inondik inora.

Joan den urtean idazkaririk gabe geratzea, eta berriz ere beste lantalde bat sortzea ez da erraza izan, inondik inora, baino hori horrela izan da udaletxe hontako gestiorako gaitasuna, ahalbideratu du Jadarreko lehen fasea martxan jartzea, ahalbideratu du Narrondoren lehen fasea martxan jarriko dugula, ahalbideratu du Alhondegiko lanak aurten martxan jarriko dituela, gainera zailtasun extra batzuk gainditu beharra izan dugularik, ahalbideratu du dirulaguntza mordo bat, dirulaguntza potente batzuk lortzea,

Zer aitu beharko genuke Estatuaren dirulaguntzak lortu ez bagenituen?

Zer esango zigun oposizioak? Lortu ditugunean entzun behar dugu, dirulaguntzak españolak direla.

Nork ez ditu eskatu?

Zarautzen ez dute eskatu?

Orion ez dute eskatu?

Aian ez dute eskatu?

Udaletxe denetan eskatu dituzte, edozein koloretako udaletxetan, guztietan, baino hemen Zumaian, dirulaguntzak españolak, despresiatu bezala, eta kudeaketa dauden lekuetan, denak eskatzen dituzte, horiek ez dira arrazoiak, horiek dira ba... ez dakit, dena negatibizatu nahi izatea, eta denei punta atera nahi izatea, arrazoiarekin edo arrazoirik gabe.

PNV-ek dirulaguntzarik eskatu gabe, nonbaiten bere nazionalismo izaera hori indartu nahi izan duelako, egin baldin badu, esan dezala eta gero esan diezaigula berriz ere eta dirulaguntza horiek españolak dira, ba...ez, horiek ere lortu ziren eta horiek lortu direlako orain kudeatzen ari gara zazpi proiektu benetan garrantzitsuak, besteak beste Oikiako auzoak eta Oikiako poligono industrialak behar duen ur-hornidura, gestiorako gaitasunik ez duenak, martxan jarriko du,

Eta non egon da PNV-ren gestiorako gaitasuna hori orain arte mantentzeko?

Ez zegoen hidrante bakarria Oikian, ez zegoen hidrante bakarria poligono industrial batean. Sute bat gertatu ezkerro, erriotik bonba batekin hartu behar zen, baino orain gestiorako gaitasunik ez dutenak beste batzuk

urtetan eta urtetan egin ez dutena, bi urtetan egingo dute, nion bezala Aita-Mariko aparkalekuak,

Anbulategiko urbanizazioa, hori ere ba...horrela geratu zen, anbulategia egin zen, txanpinoia hasi zen baino baso guztia egiteko utzi zen, eta hori ere gestiorako gaitasunik ez dutenak, martxan jarri dute, ba... ez; ez da egia; ez da egia gestiorako gaitasunik ez daukagula, hamar proiektu garrantzitsu dauzkagu martxan momentu hontan herrian, hamar proiektu garrantzitsu eta joan den urtean exekutatu gabe geratu zirenak, aurten exekutatuko ditugu eta aurten bukatuko dira horiek egiten.

Kentzen baldin baditugu Josebak komentatu duen miloi eta berrehun mila euro horiek, diru-sarrerarik egon ez direnak, joan den urteko inbertsioak sei miloi eurotakoak ziren, ba... aurten bost miloitik gorako inbertsioak bukatuta egongo dira, hobe joan den urtean bukatu izan bagenituen, baino aurten bukatuko dira guztiak, eta aurten egingo dira guztiak, lehen aipatu ditudan arrazoiengatik, bukatuko dira aurten, batzuek komenientziagatik urbanizazioa dena batera hasi eta bukatzea komeni zelako, beste batzuk baserriak bukatzea komenigarria zelako eta ondoren urbanizazioak egiteko eta beste batzuk lurren jabetza oraindik gurea ez zelako eta Diputazioaren esku daudelako lur horiek.

Eskusa bat bera ere ez dut jarri, batzuk ba... egozkor dabilta gure kudeaketa negatibizatu nahian, gu behintzat, nahiko argi daukagu herria egiten ari garela, inbertsioak egiten ari garela eta hortan saiatuko garela hemendik aurrera eta dirulaguntza gehiago lortzeko aukera baldin badaukagu, ba... lortuko ditugu eta inkorporatuko ditugu hauek inkorporatu ditugun bezala aurrekontu propioetan, eta exekutatuko ditugu hauek exekutatzen ari garen bezala,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: M. Eugenia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA, Bueno..., gauza asko esan dituzue eta nola akordatu denak erantzuten,

Gora autoestima, Andoni

Guk ateratako ondorioak ez dira numerotaz eta aurrekontuetaz, pittin bat dakien edozeinek aterako ez lituzkeenak.

Negatibizatzekeo asmorik gabe. Espero duguna da, zuk esaten duzun bezala datozen sei hilabetetan ez baldin bada ere, nahikoa zaila ikusten baitdugu, datozen urteetan ikusiko ditugula, behingoz, aipatu dituzun guzti horiek eta beste hainbeste baldin badira askozaz hobeto.

Azken finean, zuek eta gu, hemen gaude, baina gaudelako herriarentzat gauzak egiteko eta ez beste ezertarako.

Erraza ez dela izan 2008a? Noski ezetz; 2009a izango ez den bezala eta 2007a izan ez zen bezala eta 2006a izan ez zen bezala.

Arazoak? Guri esango diguzue; zeoze badakigu arazoetaz, kamiokadak izaten dira, egunero. Baina arazorik ez balego, zuek eta gu, denok soberan geundeke, gure izateko arrazoi bakarra arazoei aurre egitea baitda, eta Nola neurtzen da gure kudeatzeko kapazitatea? Ba... planteatzen diren arazo horiei irtenbideak emanaz, irtenbideak inoiz ez mundu guztiaren gustokoak, inoiz ez; nahiz eta norberak pentsatu ahaleginak eta bi egin eta gero kristorenak lortu dituela; hori horrela izaten da, -por definición-.

Josebari, ba... bai; ba... arrazoa duzu esaten duzun horretan. Esaten dugu alde batetik dirutzak dauzkagula gordeta eta bestetik defizitara goazela eta kiebra aipatzen dugu, es ke hala da, paradojiko emango du baino hala da, hala da.

Zuk gastatzen ez dituzun horiek gordeta baldin badauzkazu, han dauzkazu. Baina bestalde ez baldin badiozu nahikoa atentzio jartzen ba... aurrekontuak berezko behar dituen zutabeei, eta zutabe horiek minatzen joaten baldin bazara irudituko zaizu etxeak teilatua badaukala eta konturatzerako zutabeak eroriko zaizkizu eta teilatua gainera. Hori horrela izaten da, eta ez da oraingotzeko kontua, eta ez da negatibizatze asmoa daukagulako, alderantziz, esaten ari gara nola diren gauzak aspaldidanik, baita geuk gobernatzen genuenean ere, orduan ez zenuten ikusi nahi baina orain ere ez duzute ikusi nahi, gure harridurarako, azken finean bada nahikoa denbora zuek daukatzutela etxe honen ardura, ez guk eta honekin lotuko nuke Iñakirena,

Ba... Iñaki, bueno..., bada nahikoa denbora gestioaren ardura zuena dela eta ez gurea, ez dakit, nola kalifikatu daitekeen beti kulpa besterena da, nerea ez, nerea ez da inoiz, beti zuena da, edo beste bateren batena, nerea ez, nerea ez inoiz, beti zuena, edo beste bateren batena, nerea ez jarduten duen bat, nik ez nuke horrela jardungo. Ni saiatuko nintzateke zailtasunak-zailtasun egoera latzak egoera latz, ahaleginak eta bi egiten eta gauzak aurrera ateratzen. Bideak ez dira beti zuzenak izaten, batzuetan, buelta batzuk eman behar izaten dira baina denbora mugatua izaten da eta denbora erabili behar izaten da bideak edozein direla ere, jorratuz emaitzak lortzeko, Zu zara Alkate, Zumaiarren Alkate, Zu,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Emiliano,

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ.: Sí te había entendido, yo es que el otro día me pasó exactamente igual que lo que acabas de decir tú ahora, para mí no es la peor opción, es la mejor si se nos quedaran solo setecientos y pico mil euros, porque de esa manera estaríamos gestionando,

estariáramos gastando aquello que hemos dicho que íbamos a gastar, por lo tanto, no sería una mala noticia para Zumaia, sería una buena noticia para Zumaia, porque el hecho de que tenga remanente vamos, no sirve para nada si no se genera con ello, digamos, actividad o infraestructuras o todo tipo de mejoras que pueda llevar a cabo en beneficio de la ciudadanía, por lo tanto, para mí es el mejor de los casos que nos quedaran solo setecientos mil euros, no la peor, eso no me cabe la menor duda.

Si he insistido en una baja, no voy a decir nula, porque no es el caso, pero muy baja gestión, porque simplemente hago una comparación, es cierto que se está haciendo gestión en los siete proyectos pagados o financiados por el PlanE ó Plan Zapatero y si han gestionado para que se puedan ejecutar, es que faltaría más que encima no se hubieran hecho y se hubiera perdido ese dinero, porque ya sería el colmo de los colmos, no cabe la menor duda. Pero sí es cierto también que lo que nos compite a nosotros como presupuesto y lo que estaba previsto, pues no se ha ejecutado, entonces hay una gestión realmente nula en esa parte, aunque por otro lado y en ese sentido pues lógicamente tengo que tener cierta satisfacción, no por el hecho de que lo financie el Estado, sino porque el Ayuntamiento al menos en una parte ha sido capaz de poner en marcha esos proyectos para que ese dinero no se perdiese en beneficio de Zumaia, pero por eso no deja de haber una gestión pobre en el otro tema, y no es otra cosa ni otro intento de nada, sino sencillamente la realidad de lo que se ve del día al día y lo que tenemos en la calle, no? no es más que eso.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: M. Eugenia, baino hitzarmen hori sinatu zen egunean, Alkate zinen, Zu, ez ni; Zu, eta bigarren nik hain zuzen ere esan dizudana da, niri tokatzen zait orain Alkate bezala beste zerbaít sinatzea, bai neri eta ni eta ez ni, nere Gobernuaren hemen gaudenak ari gara zuk sinatutako horri erantzun bat bilatzen, guri egokitzen zaigulako zuk egin zenuen hura moldatzen, baina egin zenuena zinen Zu, eta konparazioak jarrita, aurreko pleno batean aitu nizun ikaragarritzko antza omen daukat nik Zapaterona, ba... ez, porque Emilianok ez nau apoiatzen, así es que ez dut izango ikaragarritzko antza nik Zapaterona eta antzak jartzen hasita eta Madrildik gabiltzanez ba... zuk igual antza gehiago daukazu Madrildik emakume rubia baten antza, ze... askotan zuk ere antza gehiago daukazu Esperanzarena nik Zapaterona baino ere.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Iñaki, nik sinatu nuen, zertaz ari zara Torreagako hitzarmenari buruz?

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Torreaga eta Ardantzabide

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Akordarazten dizut, Torreagako hitzarmena onartu zela Pleno honetan Eusko Alderdi Jeltzaileko botuekin bai, baita Alderdi Sozialistaren botuekin ere, baita Ezker Abertzaleko zinegotzi zirenen botuekin ere.

Beste hitzarmena aipatu duzuna Ardantzabidekoa, dago Arau Subsidiarioetan txertatuta eta Arau horiek Pleno honetan onartu ziren, ni Alkate izan baino lehen Eusko Alderdi Jeltzaileko botuekin bai, Alderdi Sozialistaren botuekin ere, oker ez banago, baita Eusko Alkartasunaren botuekin ere, hasteko.

Bigarren dakidanez detailetan gehiegi sartzea da, eta nik ez dut uste merezi duenik, baina bueno, Torreaga ateratzen duzunez eta horrekin zerbait zuritu nahi duzunez, ba... bueno Torreagako PAU-a ez dakit noiz, aspaldi batetan onartua geratu zen nonbait, ixiltasunez, baina nonbait, ez dakit zergatik, Udal honek ez du publikatu nahi PAU hori. Eta onartu zenetik publikatzen ez dela pasa dira, zenbat denbora? Zenbat, Zenbat,

Urteak baino...Urtea, bat baino gehiago, gutxienez, auskalo. Eta horrela zenbait detaile ere egon daitezke, ezta? Baina, bueno Iñaki, nik zeinen antzak dauzkadan eta zuk zeinenak daukazun, ba... ez zuk eta ez nik, pentsatu dezala bakoitzak horren inguruan nahi duena, Bale!

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Erantzun dizut, zuk antzatasunak ezartzen ari zarela, ez ni.

HIRUGARRENA.-

Berri eman dugunez Ogasunari buruz, Hirugarren puntura pasako gara, GIZARTE ZERBITZUAK.-

2009. URTERAKO, ZUMAIAN ADINEKO PERTSONEN ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK ONARTzea, BIDEZKO BALDIN BADA.

Hau dagoeneko Gizarte Zerbitzuetan diktamena badakazue, pasata dago, badakizue dirulaguntza guztiak aipatu izan ditugulako, ba... azken... bai Udal Idazkariak, bueno... Udal idazkari eta interbentorak bi funtzioak egiten dituelako, bere ustez eta segurtasun juridikoagatik dirulaguntzen ordenantza guztiak, gustatzen zaizkio Plenotik pasatzea, dira aurreko urteko ordenantza berberak, bai Gizarte Zerbitzuetako aurrengo puntukoa eta bigarrena ere, ez da aldaketarik izan eta hain zuzen ere, Idazkariak hori esaten digulako Plenotik igaro behar dutela, lehen batzordeetatik bakarrik pasatzen zen hura, orain ba... Plenora ekartzen dugu eztabaidatu dadin eta bozkatu dadin, PNV zuen aldetik,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Oinarri hauek, dirulaguntza oinarri hauek aspaldikoak dira eta ez dira apenas aldatu ba... aspaldidanik, orain zuk esan duzun bezala plenora ekartzen dira lehen batzordean onartzen zirenak, eta gure aldetik baietzko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: PSOE,

Sr. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ.: Si, nosotros lo que queremos es que se gestione logicamente y que las personas en las cuales, o las asociaciones en las cuales aquí puedan beneficiarse de esa ayuda, pues cuanto antes mejor y conseguiríamos también pues a su vez que ellos tuvieran una gestión de cara a sus asociados o a la persona a la cual va dirigida su acción, por lo tanto, nuestro voto va a ser favorable,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aralar, Ezerrez; Talde Mistoa,

Bueno, gainera, gai hontan gauza bat esan, ez dagoela ondo ez hau, ez beste diktamen guztiak jartzen duelako ANV eta ANV badakigu ez dagoela, Talde Mistoa dela, eh!

Talde Mistoa?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, bueno bozkatzera pasako gara, besterik gabe PNV-ek?

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Aldekoa

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, PSOE-k?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ.: A favor

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Ezker-Batua Aralarrek?

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Aldeko botua

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Talde mistoak?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA .: Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua eta EA-k ere Aldeko botua,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 12 botu (4 PNV; 3 Talde Mistoa; 2 PSOE; 1 EB-Berdeak/Aralar; 2 EA)

Aurkako botuak: 0

Abstentzioak: 0

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 12 votos (4 PNV; 3 Talde Mistoa; 2 PSOE; 1 EB-Berdeak/Aralar; eta 2 EA)

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

LEHENENGOA:

2009. URTERAKO, ZUMAIAN ADINEKO PERTSONEN ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK AHO BATEZ ONARTZEA.,

PRIMERO: APROBAR POR UNANIMIDAD, LA CONCESION DE AYUDAS ECONOMICAS PARA ASOCIACIONES DE PERSONAS MAYORES PARA EL AÑO 2009.

BIGARRENGOA: Erabaki hau legeak agindutako eran Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea jendeak horren berri izan dezan.

SEGUNDO: Publicar en legal forma el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para general conocimiento.

GIZARTE ZERBITZUETAKO bigarren puntua aurreko argumentazio berdina, baina beste ordenantza bat, beste dirulaguntza bat, oinarri batzuk:

2009. URTERAKO JARDUERAK GIZARTE ZERBITZUETAN GARATZEN DITUZTEN ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK ONARTZEA, BIDEZKO BALDIN BADA.

PNV,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Neri behintzat, hemen pasazaidan paperetan, diktamena gaizki dago, ze...euskarazko bertsioa behintzat, lankidetzako diktamena dago, hau zuzentzeko edo..., erderaz ondo dago baino euskaraz gaizki dago, eh?

Hori alde batetara utzita, hau ere aspaldiko urteetako dirulaguntza oinarriak dira, aurten saiakera bat egin genuen pixka bat aldatzeko, azkenean bere hortan gelditu ziren eta bueno gure aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: PSOE,

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ.: Igual que en el anterior dictamen, estamos a favor por lo tanto, esperamos que se apruebe y se ponga en marcha cuanto antes,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ezker-Batua Aralar,

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.. Ez gara hasi, Talde Mistoia,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Nik usten dut, denok alde gaudela esan dugula eta aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bai, esan... esan....

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Gauza bat, hemen diktamenean, bai bigarrean eta hirugarrenean ez bakarrik Talde Mistoarena, jartzen du Hazienda batzordea, eta da Gizarte Zerbitzuak euskarakoan behintzat. Eta erderazkoan uzten dut, Servicios Sociales jartzen du baina hirugarren puntuan berdina jartzen du Hazienda Batzordea, ez dakit zelan...

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Hau izaten da, teknikoak hartzen dituzte diktamenean modeloak toki batetik bestera eta pentsatzen dut cortar-pegar hortan ahaztu egiten zaiela borratzea eta Piliri adieraziko diot, Gizarte Langileari akatsa,

Besterik gabe botatu dugula denok aldeko botua, usten dut, ez? Eman dugula bada ez bada ere argitzeko, PNV-ek?

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Aldekoa

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldekoa, PSOE-k?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ.: A favor

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Ezker-Batua Aralarrek?

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Aldekoa

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldekoa, Talde mistoak?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldekoa eta EA-k ere Aldekoa,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 12 botu (4 PNV; 3 Talde Mistoa; 2 PSOE; 1 EB-Berdeak/Aralar; 2 EA)

Aurkako botuak: 0

Abstentzioak: 0

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 12 votos (4 PNV; 3 Talde Mistoa; 2 PSOE; 1 EB-Berdeak/Aralar; eta 2 EA)

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

LEHENGOA: 2009. URTERAKO JARDUERAK GIZARTE ZERBITZUETAN GARATZEN DITUZTEN ELKARTEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK AHO BATEZ ONARTZEA.,

PRIMERO: APROBAR POR UNANIMIDAD, LA CONCESION DE SUBVENCIONES PARA ASOCIACIONES QUE DESARROLLAN SU ACTIVIDAD EN SERVICIOS SOCIALES.

BIGARRENGOA: Erabaki hau legeak agindutako eran Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea jendeak horren berri izan dezan.

SEGUNDO: Publicar en legal forma el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para general conocimiento.

Hurrengo puntua: HEZKUNTZA ETA EUSKARA.- UEMA

UEMAKO ESTATUTUAK ONARTZEA, BIDEZKO BALDIN BADA.

Nerea Euskara batzorde buru bezala,

NEREA EPELDE AZKUE AND.: Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko Estatutuak plenoak onartu behar ditu eta hona ekartzeko irizpena ekainaren 15eko Euskara batzordean eman zen, eta bertan eskatzen dena da behin betiko onarpena ematea UEMAko estatutuei, horrela Zumaiako Udala ofizialki UEMAko partaide izan dadin.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: PNV, zerbait esateko,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Hemen aurrena uzten dut, Ezker Batua-Aralarrek aurkeztutako mozio bat tratatu genuen orain dela hilabete batzuk, gai honen inguruan, gero emendakin bezala sartu zuten beraiek 2009ko aurrekontuan eta gaur Estatutuak aprobatzea tokatzen da.

Bere garaian mozioa tratatu zenean gure iritziz esan beharrekoak esan genituen, alegia, beti ere euskararen sustapen politiken alde egon garela baina EUMA-k daramatzala, badaramatzala urte batzuk funtzionatzen, orokorrean egin ditugun, kanpotik egin ditugun analisisien arabera, gehienbat, nolabait, oso Udalerri txikiak direnentzat zerbitzuak emanaz edo eman nahian, eta ez hainbeste Zumaiako ezalako esturaturak edo tamainoa duten udalei zerbitzu berririk eskeiniatz, alderantziz, zenbaiten kasuetan oker ez baldin banago bere egunean Azpeitiakin gertatu zen bezala etbr... UEMA sartu ziren zenbait udal handixamar izan zen hain zuzen kontrako bidea egitea, alegia, beste batzuei beraien baliabideak edo eskeintzeko, ez dagoela gaizki, baina gure ustetan Euskararen sustapenerako programak egon badaude, gutxienez orain artean egon dira Jaurlaritzatik eta baita Foru Aldundiatik ere beste maila batzutan, eta horiek ikusten dugu eskeintzen direla eta aldiz Zumaiarako ba... UEMA-n sartzek ba... gastuaren igoera bat dakar hamabots mila bat eurotakoa oker ez banago 2009ko aurrekontuetan eta hori dena kontutan hartuta ba... gure botua orduan mozoia aurkeztu zenean izan zen bezala orain ere abstentzioa izango da.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: PSOE,

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ.: El resultado final de lo que ha dicho M. Eugenia, resulta que se me ha adelantado y nosotros también nos íbamos a abstener, pero voy a tratar de puntualizar por qué,

No se trata de estar en contra de esta asociación, ni del Euskara, ni de nada, pero leyendo en el artículo 4, el objetivo general de UEMA es ofrecer un servicio de Euskara para garantizar los derechos lingüísticos de los ciudadanos y ciudadanas, así como posibilitar el uso del Euskara en todos los ámbitos sociales y en la actividad interna de las Administraciones Municipales que lo conforman.

Yo, la verdad que leyendo todos los pueblos que conforman ese grupo, lo raro y lo difícil es que se hable en castellano, por lo tanto, la necesidad imperiosa de apoyarles en el tema del Euskara, creo que para mí está demás, pero tampoco pasa nada porque se apruebe pero es que en realidad conociendo los pueblos como los conozco que son, lo raro es que vayas allí y te encuentres con una sola persona que hable en castellano, no en Euskara, en Euskara lo hablan hasta los gatos, por lo tanto, creo que está un poco fuera de... , que es normal por otra parte, que no lo estoy criticando sino el hecho de que se forme esa asociación y se entregue dinero para ayudar a los ayuntamientos que menos lo pueden necesitar el tema del uso del Euskara, porque son precisamente los que lo utilizan al cien por cien, es por lo que no vamos a estar en contra pero desde luego dar el voto positivo, pues nos parece un poco no sé.... fuera de lugar, por lo tanto, nos vamos a abstener,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aralar,

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Nik bakarrik esan, M. Eugeniak esan duen bezala, guk 2009. aurrekontuei ezarri genien emendakin bat dela UEMAn sartzea hau, pentsatzen dugulako Euskararen alde lan egiten ari den Mankomunitate bat badela eta bertan Zumaiako Udala bertan izatea ona izango litzatekeela pentsatzen dugulako,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Talde Mistoa,

NEREA EPELDE AZKUE AND.: Egia da, M. Eugeniak esan duen bezala UEMA baliabiderik ez daukan udaletxetan egiten duela lana eta bere teknikari zerbitzuak eta eskeintzen dituela, hemen badaukagu hori, dena dela ere nik usten dut, teknikari bat izateak eta arlo ezberdinetan, programa ezberdinak garatzen lagunduko digula UEMA-k ere, eta lankidetzaz hasiko dugu eta ikusiko dugu zenbateraino ematen duen.

Gero egia da diru kopuruan igoera bat dakarrela, nahiz eta aurrekontuetan azaltzen den kopuru hori ez dela erreal, ze... ekainean gaude, oraindik ez gara UEMA-rekin lanean eta orduan kontatuko litzake lanean hasten garen momentutik, proportzio hortan kobratzen du UEMA-k biztanleko eta lana egiten duen hilabete kopuruko, ez da hamabost mila eurokoa izango, eta bueno... neri iruditzen zait positiboa dela, UEMA-k EuskalERRI osoa hartzen du kontuan, honek suposatzen du lankidetzaz bat sortuko dela beste Iparraldeko herriekin eta Nafarroekin ere bai, eta positiboa dela Zumaiarentzat eta aurrera,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bai, gu, gure aldetik ere, nik usten dut, esanak esana daudela, eta neri iruditzen zait Euskararen dagoen edozer gauza ondo etorria dela, azken finean herri horiek ere baliabide propioirik ez daukatelako, eta iruditzen zaidalako horrelako asoziazio bat sortzea, batez ere, herri txiki horiei eta baliabidea ez daukenei laguntzeko modu bat delako,

Besterik gabe botatzera pasako gara,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Abstentzia,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: PNV-k Abstentzia, PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ.: Abstención,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Abstentzia, Ezker-Batua Aralar?

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Alde botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Talde mistoa?

NEREA EPELDE AZKUE AND.: Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua eta EA-k ere aldeko botua,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 6 botu (3 Talde Mistoa; 1 EB-Berdeak/Aralar; 2 EA)

Aurkako botuak: 0

Abstentzioak: 6 botu (4 PNV; 2 PSOE)

LEHENENGOA: UEMAKO ESTATUTUAK BEHIN BETIKO IZAZERAZ ONARTZEA,

BIGARRENGOA: Akordio honen berri Udalerri Euskaldunen Mankomunitateari ematea.

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 6 votos (3 Talde Mistoa; 1 EB-Berdeak/Aralar; 2 EA)

Votos en contra: 0

Abstenciones: 6 votos (4 PNV; 2 PSOE)

PRIMERO: APROBAR DEFINITIVAMENTE LOS ESTATUTOS DE UEMA.

SEGUNDO: Notificar este acuerdo a dicha Mancomunidad.

Eta besterik gabe,

KIROLAK.-

KIROL PATRONATUKO ESTATUTUAK, ONARTZEA BIDEZKO BALDIN BADA.

Esan bezala gai eztabaidatua kirol batzordean hainbat batzordetan eztabaidatutako eta ikusitako gaia da, izango dira bi hilabete oker ez baldin banago gaia hasi zela eztabaidatzen ba... kirol batzordean, pixkat gaintetik aipatzeagatik eta dagoeneko kirol batzordean aipatu izan diren gauzak edo gaiak nondik datorren ez? Orain dela urtebetetik hasi ginen pixkat bueltaka, Zumaiako kirola nola antolatuta zegoenaren inguruko hausnarketa egiten eta horri ondoren gehitu zitzaion konturatu ginela polikiroldegiaren kudeaketaren amaiera zetorrela, gaur egun, dagoen bezala kudeaketa amaitzen zela eta ezer esaten ez baldin bagenuen, berriz ere urrian beste hamar urterako automatikoki prorrogatuta gelditzen zela, gaur egun eramaten ari den Kirolzer enpresak berriz ere kudeatuko lukeela beste hamar urtetan kiroldegia.

Horren inguruan hausnartzen hasi eta beste modelo batzuri begira jarri ginen eta horrela Bergarara jo genuen, jakiteko Bergarak nola, iritsi zitzaigulako Bergararen modeloa, modelo egokia izan zitekeela eta esan bezala Bergara jo genuen, Bergaran ikusi genuen Patronatu bat eratuta zutela eta Bergarara bi bidai, bueno bidai bat eta beste kontaktu bat egin ondoren, bera honera etorri ondoren, modeloa gustatu zitzaigun.

Horren ondoren Elgoibarko modeloa ere ikusi genuen, Elgoibar hain zuzen zectorren gure sistema berdintsutik, enpresa pribatu batek kudeatzen zuen Polikiroldegia, eta urte batzuk badira hura bukatu eta Patronatu bat eratu zutena. Bertako Teknikariarekin hitz egiten izan ginen, bertako teknikariaren aldeko irizpena ere jaso genuen eta batzordean horrela isladatua izan zen.

Bitarte horretan Kirolzer enpresarekin ere kontaktuak egin genituen, esan zitzaien nola bueltaka ari ginen balizko Patronatu bati buruz hitzegiten ari ginela eta edozein kasutan haren emaitza jakinaraziko geniela kontratua bukatu aurretik.

Langileekin ere gure elkarrizketak izan ditugu eta jakinarazi zaie edozein kasutan horrela baldin bada begiratu ditugula, baldin eta Patronatua sortzen baldin bada, begiratu ditugula beraien baldintzak, eta baldintza horietan begiratu ditugula subrogatuta geratuko lirakeela nahiz eta monitoreen kasuan konbenioa negoziatzen ari diren etbr... baina bueno... gaur egungo konbenioa aplikatu ezker, garbi dago subrogatuta ere geratuko lirakeela bai monitoreena, bai mantentze lanetan dabilen jendearena eta baita garbitzekoena ere eta baita ere lehiatilan dauden bi kontserje administratiboena baita ere.

Era berean, kontrako-aldeko iritziak entzun genituen batzordean, Patronatuaren aldeko iritziak baina kontrakoak ere, eta horrela Iruinako teknikari baten iritzia jaso genuen Patronatuan, zeinaren arabera lehendabizi alde zegoen baina ondorenean beraiek konturatu zirela Patronatuak ez zuela funtzionatzen behar bezala eta bere ikuspuntua ere mahai gainean jarri genuen kiroltako batzorde batean, eta Zumaiako kirol taldeei dagokionez baita ere gure kontaktuak eginak ditugu, ez denekin baina bai batzuekin eta beraien ikuspuntua ere azkenenego kirol batzordean mahai gainean jarri izan dugu.

Ondorioa, Balizko Kirol Patronatu horretan, gaur onartzen duguna da dira Kirol Patronatu baten Estatutuak, baino etorkizun bati begira eta Kirol Batzordean horrela aitatu izan dugu, Kirol Patronatuak zuzenean hartuko lituzkeen pertsonak izango lirake Kiroldegiko edo Patronatuko barkatu, gerente bat, Kiroldegiko zuzendari bat eta baita ere administratibo bat.

Beste guztia subkontratatu egingo litzateke, gaur egun dagoen bezala eta numeroak egin da, zenbakiak egin da, horrela eskatu genituelako,

dauzkagun numeroekin, alegia, kirolzerrek guri urtero pasatzen dizkiguten numeroekin alderatuta laurogei mila eurotako aurrezpen bat lortuko luke Udal Patronatu horrek gaur egunean daukagun sistemarekin alderatzen baldin badugu, beraz, alde hortatik alde ekonomikotik ere horrelako aurrezpen bat badagoela aurreikusten dugu.

Beraz, gaur martxan jarri nahi duguna, sistemaren aldaketa baten ondorioa da, era berean urrian bukatzen du gaur egun Kirolzerrek bere kudeaketa; beraiekin hitzegin ondoren eta jakin da gauzak nola geratuko liratekeen denborari dagokionez, berriz ere kontratua denuntziatu eta beste kontratu berri bat egin beharko litzateke, gutxi gora behera, ekaina bitarterarte, ekaina-uztaila bitarterarte eta bitarte hortan denbora emango liguke lehen esan ditudan ba bai pertsonak baita ere kontratazioak martxan jartzeko.

Beraz, gaur aurrenengo pausoaren, pauso bat bide hortan aurrenengo pausoa eman behar dugu eta hori da hain zuzen ere gaur plenora eztabaidatzera edo onartzera ekartzen dugun gaia, bateren batek gero esplikazio gehiago nahi baldin baditu erantzungo ditut, PNV

UNAI MANZISIDOR ANDONEGUI JNA.: Azken komisioretan, zuk esan da bezala, luze eta zabal hitzegin dugu gai hontaz, gu betiko jarrera hortan segitzen dugu berreztu egiten dugu ezezkoa dena eta besteak beste lau edo bost arrazoi emango ditugu gure jarrera azaltze alde,

Lehenengo Patronatuak ere eredu gaindituak direla pentsatzen dugu, zeren azkenean hitzegin dugun guztietan, Nafarroako adibidea jartzen da gehienbat, hori Iñaki, zuk, ere komentatuta gehienbat, hori jakin izan dugula, eta han orain arte bakarra dago Patronatua eta bera desagertzeaz edo tramite hortan dago, hori bat, gero bigarrena

Patronatu beharrik ez dugu sumatzen zeren alde batetik zerbitzua mantendu egingo litzateke ze... orain arte hitzegin denaren arabera, hori da, gero Kirol Elkarte desberdinei emango litzatekeen laguntzako gestioan laguntzik hasieran behintzat ez da hor ikusten eta gero Kirol Patronatua osatzean, hor egongo litzakeen Juntan, ordezkari bat dago Kirol talde desberdinentzako eta orain momentuan hamalau talde egotean interes kontra jarriak egongo direla eta horien artean barne liskarrak garbia izango da, nahiz eta joera hasieran behintzat hori bultzatze aldera izango den, gero beste bat

Errentagarritasuna, orain momentuan beste hiru lanpostu sortuko litzatezke lan bera egiteko eta pentsatzen dugu gainera, gehienbat, adituarekin hitzegin eta gero harek esaten zuen hiru urtera joera aldaketa egoten zela baliabideak positibo izateagatik defizitarioa izatea pasatzen zela, hori aipatu izan da behin baino gehiagotan eta hori eskertzekoa da zuk hasieratik garbi laga izana hori,

Gero beste bat, bizitzan gehienbat ziurtasunez jokatu behar da eta gehiago diru publikoarekin ari garenean eta pentsatzen dugu, orain garaia bai zuentzako gobernatzen zaudetela zein partikularrentzat esperimentu berriak egiteko garaia ez dela.

Hasieran aipatu zen ehun eta hogeita mila euro inguruko aurrezki aurreikuspen bat zegoela, gaur egun laurehun mila inguruan geunden eta hortik jeitsi daiteke gehiago, monitoreen konbenioa oraindik esan zioten itxitzen edo ez dakigula zer gertatuko den baina hor ere aldaketak egon daitezkeela.

Gero beste arrazoi bat pentsatzen dugu modu egokian funtzionatzen duen gauza bat, zertan aldatu ez dagoela, Zumaian Kirolak funtzionatzen duela garbi dago, Polikiroldegian 3.500 bazkide inguru daude, hamalau kirol talde desberdin, funtzionamendu egokia da eta kirol talde bakoitzak bere koto pribatua dauka, ez dut nahi han sartzerik eta ez dut pentsatzen Patronatua sortzean hori aldatuko denik,

Gero azkena, Elgoibarko Patronatua aipatu da bi eredu bat bezala, eta Elgoibarko Patronatua guk dakigula behintzat kendu nahian dabilta, azken urteetan duen joera balio bide ekonomiko gehiago eskatzen dituelako eta urtetik urtera zuloa garbi geratzen ari dela, besterik ez, gure jarrera badakizue zein den eta besterik ez dago esaterik,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: PSOE,

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ.: Nosotros, sí, bien dicho, no asistimos normalmente porque lógicamente ante la imposibilidad de estar en todas las comisiones optamos por unas y otras lógicamente seguir las a través de las actas que se ejecutan en cada una de ellas, para tener un conocimiento más o menos objetivo de lo que se está ejecutando en ellas, por lo tanto, no somos desconocedores aunque no asistamos a esa comisión de lo que se pretende con estos Estatutos o este dictamen de la Comisión de Deportes.

Lógicamente si yo tuviera que hablar sobre un Patronato de Deportes, lógicamente el que conozco es el de San Sebastián, el resto me supongo como serán más o menos pero los desconozco, y desde luego el de San Sebastián cumple una función concreta creo a mí entender que está funcionando bien, que da un servicio muy completo a cada una de las cuestiones que se plantean, no solamente el deporte de clubes o asociaciones sino que incluso gimnasia, recuperación y demás de particulares en los propios polideportivos a través de lo que es el gimnasio que tienen cada uno de ellos en San Sebastián, no sé si son seis o siete los que hay y otro par de ellos en marcha que están ahora, por lo tanto,

nosotros no estamos en contra de la creación de un Patronato Municipal aparte de que lógicamente se pone ahora en marcha y si al cabo de un tiempo se viera lógicamente que hay algún tipo de error en su planteamiento, tiempo tendremos de cambiarlo, puesto que mientras no empiece a funcionar y empiece a dar gestión, difícilmente se puede decir ya de antemano que puede ser negativo o positivo, sino que lo que conozco es positivo, da opción a que tenga confianza en que esto también sea así y si no lo es en su momento pues ya lo diremos, lo denunciaremos o propondremos el cambio que diera lugar si es así, pero de entrada nos parece correcto y creemos que puede ser positivo como en otros ayuntamientos el funcionamiento del Patronato de cara, sobre todo porque aglutina más que otra cosa, no? Ahora cada club y cada persona va por libre y eso me refiero en Zumaia, y eso crea ciertos problemas que incluidos dentro del Patronato están más controlados y más atendidos, que no quiere decir que vayan a recibir más dinero, sino que están más atendidos y más controlados, que redundan en beneficio aún con el mismo presupuesto,

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Gure taldea aspalditik zebilen Kirol batzordetan esaten udazkenean amaitzen dela udaletxeak Kirolzer enpresarekin duen kontratua polikiroldegia kudeatzeko eta galdetzen genion udal gobernari ea zer egin behar zuen kontu hontan ez baigenuen batere begi onez ikusten polikiroldegia kudeatzeko ezarrita dagoen azpikontratazio sistema hori.

Orain udal gobernua proposatzen du Kirol Patronatu bat sortzea, Patronatu honek Zumaiaiko kirolak kudeatuko luke baita eskolartekoa ere eta nola ez Polikiroldegia. Hiru lanpostu sortuko ditu: Patronatuko gerentea, Kirol zuzendaria, Polikiroldegiko arduraduna izango dena eta administrari bat. Esan nahi dugu guzti honekin ados gaudela, aurrera pauso bat iruditzen zaigula eta aldeko botua emango diogula, pentsatzen dugulako Patronatu honek bi gauza on dakartzala berarekin,

Lehena da begi onez ikusten dugula Zumaiaiko kirol guztia, batizpat, eskolartekoa kudeatuko duen Patronatu bat sortzea eta bigarrena eta garrantzitsuena positiboena dena Patronatu honek, berak, diru sarrerak eta gastuak zenbatu ahal izango dituela, gero kudeatu ahal izateko.

Lehen enpresa pribatu batek zioena sinistu behar genuen, kirolak ze diru sarrerak ematen dituen jakiteko, honekin batera esan baita ere aurrerantzean udalak ez diola enpresa bati ordaindu beharko Zumaiaiko kirol talde batek udal polikiroldegian jokatu ahal izateko.

Hau usten dut jende askok ez dakiela, baina adibide bat jartzearen, gaur egun Pulpo eskubaloia taldeak polikiroldegian jokatu ahal izateko bere

partiduak udaletxeak enpresa partikular bati, Kirolzerri kuota bat ordaindu behar izaten dio eta aurrerantzean ez da horrelakorik izango,

Beraz, eta hau guztia esan eta gero ezin dut amaitu esan gabe, proposamen honek baduela guretzat ez usteko handi eta txar bat, ez ustekoa da azpikontratazio bat mantendu egiten dela, gure ustez zuzendari... kirol zuzendari horrek egin beharko lukeen lanetariko bat hau da, Polikiroldegiko langileen kontratuak kudeatzea, erabaki duzuela azpikontratatzea. Esan nahi dugu, ez gaudela batere ados azpikontratazio honekin, eta nahiz eta aldeko botua emango diogun proposamenari pentsatzen dugulako gauza onak dituela txarrak baino gehiago, Patronatura joango den gure taldeko ordezkariak prioritate bezala izango duela ahal duen guztia egitea azpikontratazio hori desagertarazteko.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Talde Mistoa,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA.: Ni laburra izango naiz, ez dakit zenbat batzorde egin ditugun Kirol Patronatua dela eta ez dela, eta aldekoa botatuko dugu, noski, esan nuen batzordean; eta garrantzitsuena nik ere ikusten dut diru sarrerak eta gastuak etbr... orain guk kontrolatuko ditugula eta lehen ez ginela... eskatu Kirolzerri eta ematen zigun urten orri bat eta ikusten genituen, orain guk eramango dugu hori eta hori gainera Estatutuetan garbi ikusten da, adibidez, ipintzen duenean hamalagarren artikuluan hamargarren puntuan :

“ Urte bakoitzeko abenduaren 31n, inbentarioa eta balantze orokorra (aktiboa eta pasiboa) egingo ditu, hala nola emaitzen kontuak, eta horiek guztiak zuzendaritza batzordeari jakinarazi beharko dizkio, hurrengo lau hilabetea amaitu aurretik.”

Baina hori baino garrantzitsuago oraindik nabaritzen da hogeitabigarren artikuluan esaten duenean Zumaiako Udalak tutelatuko duela Patronatua eta hor ikusten da batez ere tutoretza-ahalmen horien barruan zer egin beharko duen, ez?

Erakunde autonomoaren aurrekontuak.

Urteko kontuak, memoria, balantzea, inbentarioa.

Ondasun higiezin besterentzea, lagapena edo zergapetzea.....

Kreditu publikora jotzea.

Langileen plantilla.

Estatutuaren aldaketa eta,

Laburpen bat egin da, nik usten dut orain transparenteagoa izango dela, gero bestaldetik egia da baita ere azpikontratazioarekin ba... mantentzen

dela, bueno... mantentzen da hiru postu zuzenean kontratatuko dira, garbitzaileak lan... baita ere egia da lan-baldintzak hobetuko dituztela, nahiz eta zuzenean kontratatu ez, momentuz behintzat, baina agian posibilitatea ikusten da garbitzaileekin behintzat etorkizunean, baita ere, azpikontratazioa kentzeko zeren nahiko postu estrukturalak dira, ez dira monitoreenak bezala, horiek zailago ikusten dugu, baina hori etorkizunean ikusiko da, eta besterik ez,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bai, nik, Unaiiek esan duenari, nik kezka batzuk, kezka bat aitatu du eta nik ere batzordean aitatu izan dut ni ere ados nagoela ez? kezka batekin.

Gauza berri bat martxan jartzen denean, beti daukazu kezkak, ez? eta adibidez, kezkatariko bat eta horretan ere gure gora beherak izan ditugu batzordean, denak entenditu izan dugu, adibidez, kirol taldeetako ordezkari bat etorriko da, horrek funtzionamentua hobetuko du?

Bere interesari bakarrik begiratuko diote?

Kezka ere hor dago, orain aldiz neri iruditzen zait prueba egin behar dugula eta konfiatu ere, kofiantza minimo bat eduki behar dugula, ez? gauzak aldatzea nahi baldin baditugu eta bakoitzak ez dezan pentsatu hau koto pribatu bat dela eta kontzientziarioa hartzeko hemen poltsa amankomun bat dagoela eta poltsa amankomun hortatik denei diru berdina etorri behar zaigula, ez litzake txarra izango bakoitza bere erantzunkizunaren ardura bat izan dezaten eta izateko modu bat iruditzen zait dela ikustea bertan parte hartzea bileretan eta egotea eta ikustea zer dagoen, ez?

Gero beste gauza batzuk, Unai, hiru pertsona kontratatzen direla lan berdina egiteko?

Ez lukete gaur egun egiten den lan berdina egingo, lehen ere Xabierrek aipatu du baita ere Kirolarteko Eskolarteko kirola ere kudeatuko lukeela, gero baita ere kontutan izan behar dugu, baita ere, eta adibidez, triatloiko jendearekin izan nintzenean lehengoan bilduta honi buruz hitzegiten, hala esaten zuten, badira kirol talde batzuk eta kirol jarduera batzuk adibidez, triatloia da bat, non gero eta maila handiago izaten ari diren eta ia ez da diru ekonomikoa behar dutela gehiago baita, baizik eta behar dutena dela estruktura pertsonal bat zeinek lagunduko dioten, ez? eta suposatzen da administratibo horrek ere, kontratatuko dugun administratibo hori ere izango dela baita ere lagunduko duena ez % ehunean eta hori bada ez bada, argi lagatzen ari garen guztiei, zeren, Federaziotara eramane behar diren zerak... eta ez ditu berak eramango % ehunean, hori imposiblea delako, baino bai behintzat, horrelako jarduerak kirol jarduera batzuk egiten direnean, ba... hor izango dugu administratibo bat gutxienez, horrelako zerbait emango duena.

Errentagarritasunari dagokionez, igual datuak ez dauzkat oso ondo baino ni akordatzen naiz Elgoibarko Teknikariarekin izan ginenean esaten zuela Patronatuak nola baiteko retorno bat ere bazuela, eta behintzat autofinantziazten zela Patronatua, egia da, bere hitzak direla eta ez naiz, han esan nuen bezala adibidez Elgoibarko Alkatearekin izan naiz eta hemendik gutxira bilera batean elkarrekin izango garen eta aipatuko diot gaia eta ea berak bere iritzia zer esaten didan, ez? Berak esandako hitzak behintzat haietxek izan ziren Patronatu... Elgoibarkoak behintzat autofinantziazten zela, ez?

Egia... bueno egia ez dakit den, guk bere garaian esan genuen baita ere ehun mila eurotako aurrezpen bat zuela, ez dakit, ehun eta hoge mila esan genuen, nik usten dut, ehun mila zela, baino bueno... baliteke, eta gero esan genuen laurogei mila zela, hain zuzen ere, lehenago aipatu du Josebak baino garbitzaileetan horrelako lan baldintzak hobetzen zirelako baita ere, ez?

Gertatzen dena da laurogei mila horiek zeudela pentsatuta baita ere beste alde batetik kontutan eduki bi administrari kontratatzen baldin baziren, akordatzen zarete hasieran bi zirela, beraz, aurrezpena ia ez litzake laurogeikoa izango baizik eta gehiago izango litzake, ez dauzkagu kalkuluak atera baino oraindik inkluso aurrezpena gehiago izango litzake (berrogei bat mila euro gehiago esaten didate hemendik) ba... baliteke, ba... begiratu, ehun eta hoge... egongo ginake gutxi gora behera, ez?

Eta Patronatua eredu gauditua dela, ba... bai, ikusi genuen... ni saiatu nintzen nahi nuelako batzordetara eramaten ikuspen guztiak eta gero bakoitzak libreki har zitzala nahi zituen erabakiak, ez?

Eta egia da Nafarroan behintzat hark eman zigun bertsioen arabera, ba... modelo gauditua dela, ez? aldiz baita ere kontrakoa ere badago, ez? lehen Bergara eta aipatu dut eta itxura denez eredu bezala ere aitutzen da Bergara eta ematen du berriz han ondo funtzionatzen duela, ez?

Besterik gabe, zeozer esateko M. Eugenia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bai, azkar-azkar, Aralarrek esandakoari, ba... udalak pista erabiltzeagatik akaso ez du ordainduko, udalak egingo duena da Patronatutik eragindako zulo ekonomikoa ordaindu bere egunean, gaur egun kiroldegiaren kudeaketak ez dio horrelako dirurik suposatzen udalari, hemendik hiruzpalau urteetara balorazio hori egingo dugu, Elgoibarko Alkatearekin neu egon da nago, bai, eta oker ez baldin banago buruz ari naiz baina ez dut uste asko erratuko dudarik, seirehun mila eurotako defizita baino gehiago dauka Elgoibarko Patronatuak urtero eta bere esanetan da eredu erabat defasatua eta horroroso, ez dut uste, hitza zehazki hori izan zenik baina antzeko zerbait esan zidanez,

Egun, kirol batzordeak egiten duena egongo da Udal Patronatuaren eskuetan, Udal patronatua Udal izaerakoa da eta hori inork ezin dezake ukatu, baina baldin eta ez baldin badugu nahi eta irizpidea baldin bada ez esternalizatzea lanak eta zerbitzuen kudeaketak ez dudana ulertzen da zertako tarteko bide hortan geratu? Ba... behin koherentea izan da izan gaitezen koherente, eta hartu dezala Udalak inolako azpikontrataziorik gabe, inolako erdibideko erakunderik gabe, zuzen-zuzenean behar dituen langileak kontratatuz kirol batzordetik gestio guztia, Zergatik ez?

Azkenean estruktura berdin-berdina sortzen da, frogak, froga... froga egingo duzu eta froga horren balorazioa izango da ona, oso ona edo eskasagoa, baina sortzen errazak izaten dira gauzak eta desagertarazten berriz oso zailak, edo ezinezkoak.

Eta transparentziari buruz, nonbait oso zaudete kezkatuta Kirolzerrek kudeatu dituen diru-sarrerekin baina neri iruditzen zait, zerbaitetan erraza baldin bada diru kontuak ateratzea, kiroldegian dela, hiru mila eta berrehun, hiru mila eta bostehun edo dena delako bazkide kopurua eta tasak ordenantzetan onartuta baldin badaude onartzen ditugula, oker ez banago, urtero biderkatu hainbeste bazkide bider tasak eta hori da diru sarrera ehuneko lauregeita hamazazpi batetan eta beste gauza bat, gu gobernuan geundela, behintzat, urtero-urtero, Kirolzerrek aurkezten zituen bere kontuak kanpo Auditore batek auditatuta, guk usten genuen hori orain ere horrela zela, Ez al da ba horrela izan?

Eta bueno... horixe zen esan nahi nuena,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Zeozer esateko, Emiliano, algo para decir?

SR.EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ.: Poco más, en realidad, nosotros partimos de la idea lógicamente de que esto al Ayuntamiento no le va a costar más, tampoco tenemos por qué buscar que nos ahorre pero si eso es posible, mejor que mejor, de todas las maneras el Patronato depende mucho del tipo de actividades que desarrolles, que propongamos a desarrollar a los posibles socios o usuarios del conjunto del Patronato, no solamente del Polideportivo sino del conjunto de lo que se forma o lo que pasa a ser el Patronato.

No cabe la menor duda de que si se hace única y exclusivamente poner una figura para atender a lo que es hoy y que está más o menos organizado, como pueden ser los clubes o asociaciones deportivas, pues no serviría, en realidad no darían ningún servicio, ni serviría para más de lo que ahora está haciendo el Concejal de Deportes ó la Concejal ó en quien recaiga en cada sitio esa figura, no?

Nosotros entendemos un Patronato como algo más, como lo han hecho en San Sebastian, se llega a prestar hasta ese servicio para gente que en vez de ir a un gimnasio privado y va al gimnasio del Polideportivo de turno y se le ofrece las mismas actividades con logicamente un menor coste y a su vez supone una garantía de ingresos por parte del Ayuntamiento a través del Patronato con las cuotas que pagan de la actividad, y ya digo, pues Pilates... hacen de todo tipo de gimnasia, de recuperación y demás para mayores, para jóvenes para lo que sea, y eso significa y lo que nosotros entendemos que es lo que tiene que hacer el Patronato, buscar precisamente esos socios ó esa clientela que le va a posibilitar que a través de la cuota sea posible autofinanciarse y no tener un coste deficitario para el Ayuntamiento, porque entonces en ese lugar sería contraproducente crear un Patronato, por eso he dicho anteriormente que en principio a nosotros nos parece bien y logicamente en cuanto empiece a funcionar y si no es capaz de desarrollar esa labor, pues entonces se llevaría a cabo lo que fuera necesario y desde luego nosotros estaríamos dispuestos hasta proponer en su momento la desaparición del mismo, si diera lugar a ello; esperamos que no sea así y por la experiencia que tenemos, hasta ahora nos dice que no es así no digo que no tenga déficit algún Patronato porque lo puede tener, por qué no? Depende mucho de la gestión porque logicamente si, no sé, por el mero hecho de poner una figura muy normalita en las piscinas, si vas a ir a una piscina cubierta o descubierta si la tiene, el Patronato dentro de su organigrama y resulta que vas y en la piscina cubierta está el agua más fría que la que está fuera en la calle, pues no vas, y al final no te haces socio, pero si resulta que eso te reúne condiciones de limpieza, de higiene, y demás y posibilidad de uso en condiciones normales, el primero que te apuntas pues eres tú, porque te ofrece un servicio en la cual te agrada y vas a disfrutar de él, por lo tanto si cumple eso el Patronato no tiene por qué ser deficitario, sino tiene que autofinanciarse sin grandes problemas, no hay más.

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Nik ez, M. Eugeniari erantzuteagatik, nik esan dudana da Kirol Batzorde guztietan ikusten dugun zerbait, hau da, Kirolzerrek jartzen dituen fakturak, bai Pulpo, bai Zumaiako, bai Taikondo eta hor dauden taldeak pista edo erabiltzen dutena erabiltzeagatik, Kirol batzorde guztietan ikusten da, Franek ateratzen dituen faktura guztiak, hilero-hilero Kirolzerrek pasa dizkion fakturak eskubaloi taldekoak partidu bat jokatu duelako eta horixe esan dut nik, neri ez zait...

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Zeozer Joseba,

JOSEBA-JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Ez, Bai hori batzorde guztietan egoten da, hori... bai, aspalditik dago, aurrekontuetan dago partida bat kirolez instalazioak erabiltzeagatik honenbeste,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Barkatu, eh?

Badira hamar urte ez? Kirolzerri kudeaketa eman zitzaiola, orduan nahiko eztabaidatua izan zen, neurria izan zen eta ez zegoen hainbeste lekutan formula hura, gerora zenbait kiroldegitan jarria da, baina garai hartan orain egiten ez den bezala, horrelako erabaki bat hartzeko eta defendatzeko gabardina jantzita eramateaz aparte hilabete batzutan, mobida egon zelako, larunbat arratsaldero Erribera kalean, firma bilketak etbr. etbr. egin genuena bai izan zen zentzunezko gauza bat izaten dena alderaketa zabal bat,

Zein herritan zeuden kiroldegiak?

Zein herritan igerilekuak?

Zein, zerbitzu eskeintzen ziren?

Ze herri horietatik zeukan nolabaiteko antza Zumaiarekiko?

Neurketa batzuk eta alderaketak egin genituen nola kudeatzen ziren? Ze formula desberdin zeuden, kirol azpiegitura kudeatzeko? Eta ze kostu suposatzen zien kudeaketa eredu desberdinak udalari?

Oraintxe, Elgoibarkoa, gaur egunekoa aipatu dut, orduan ere hala zen, Zarautz horrela zen, hainbat eta majina bat herriko kontu horrela zen, alegia, urtero-urtero lauhun bat mila eurotik zazpirehun bat mila eurotara piszinako sumiderotik behera joaten ziren eta hori urte, hamar urtetan gehitu ezker, imajinatu ze... dirutza, akaso bankuan gordeta dauzkazuten sei miloi t´erdi horietara iritsiko ginen; harrezkero kudeaketa eredu aldatu zenetik Zumaiako udalari hura ez zaio batere kostatu, salbu oraintxe aipatu duzuna Kirol federatuen pista erabilpena, eta hori inoiz ez dugu sekretuan mantendu, alderantziz, saiatzen ginen adierazten Kirol federatuei dirulaguntzak emateaz aparte, zuzenean joaten zaizkienak baita konzeptu hori ere dirulaguntzatzak hartzeko eta hori aurreztuko da, eredu honekin baina eredu aldutzen hasita nik esaten dudana da,

Zergatik tarte batean edo erdi bideko leku batetan geratu?

eta zergatik ez planteatu gauzak ba... horrela -con valentía-, ez?

Eta bestalde, ez du Udalak gehiago pista ordainduko, baina hemendik hiru urtetara hitzegingo dugu aplikatzen baldin bagara parean edo bestela geratzen gara kafe bat hartzeko zein diren orduan Udalak ordainduko dituenak,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Baina hain zuzen ere, horretara noa, hain zuzen ere zuloatik botatzen baldin baditu udaletxeak piszinaren mantenimenduagatik ez dakit zenbat diru, harritzen didana da gero enpresa batek nola hartu dezakeen horren kudeaketa neurria, ez?

Hartzen du, hain zuzen ere irabazpide bat badaukadalako eta zergatik?

Berak, en su cuota de abonados igo duelako edo igoera bat daukadalako eta berak errentagarritasun neurri bat badaukadalako, ez?

Kasu hontan zer gertatzen da?

Guk ez dugula jeisten abonatu bakoitzaren kuota eta beraz suposatzen dugu guk ere gure errentagarritasuna izango dugula, hain da horrela, non esaten ari naizen gutxi gora behera laurogei mila gutxienez eurotako aurrezpen bat izango dugun, egia da, beste guztietan ere ordaintzen jarraituko dugula baina oraindik ere aurrezpen bat izango dugu, eta gero hemendik hiru urtera aurrezpen hori ez dela horrelakoa izango, hori beti joango da eta hori batzordeetan behin baino gehiago ere aipatu dugu, baldin eta nolako gestoria daukagun, ez? gestoriaren arabera joango da baina en un principio es du ematen hori berriz ere desfasatzeko moduan izango dugunik, baizik, baldin eta helburuak garbi baldin badauzkagu, ez?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Badakizu non dagoen aldia?

Egia da, enpresak sortzen dira, sortzen baldin badira arrazoi bakarrarekin eta da dirua ateratzea, asko edo gutxiago, ahal dutena, baina dirua irabaztea, hori horrela da.

Enpresa batek egiten duena da kuido handia jarri kudeatzen duen hortan, diru galerarik ez edukitzeko, eta bere motibazioa oso altua izaten da kuido hortan, aldiz, egitura publikoa denean, denona denez, eta nola sabaian apuntatzen den kontu bat izaten den, ba... gertatzen dira ba... joan den aste santutan Ubillosen Musika Patronatuan hain zuzen gertatu zena, norbaitek utzi zituela etxe guztiko argiak eta kalefazioak piztuta eta horrela egon zirela bost egunetan edo sei egunetan, hori horrela da, azken finean zein Zumairrek nabaritu du bere patrikan argi eta kalefazio guzti horiek ordaindu dituela? Inork ez.

Baina ordaindu ditu norbaitek. Zumaiar guztiek. Eta hori da adibide bat, izan daiteke adibide txiki bat, baina benetan eta ojala oker egon, baina orain Xabierri eskeini dioten kafe hori zeuri ere eskeintzen dizut, hemendik hiru urteetara eta egiten dugu balorazio honesto bat nola joan den, ze... ez da bakarrik kontu gutxiago edukitzen dela, dinamikak ere desberdinak izaten dira, bueno, badakit zuei langileak kontratatzea eta hori asko gustatzen zaizuela eta neuri ere gustatuko litzaidake al banu, eh! kontua da diru asko kostatzen dela eta diru hori Zumaiarrek pagatzen dutela.

Publikoa den leku batetan nola ez dago inor ugazaba lanetan inorrez, ze... gutako denok gara de -quita y pon-, eta gelditzen direnak, horiek betirako, ba... beti ere langile gehiago behar izaten da, eta bere dinamikak sortzen dira eta ez leku batetan baizik eta leku guztietan, eta horrela hainbat eta hainbat adibide, azken finean gauzak denok ikusten ditugu denok dauzkagu eta bi begi, gero da bakoitzari zer inporta izaten zaion edo nola baloratzen duen arriskua, baina berriz ere diot hemendik hiru urteetara kafe pilo bat pagatzeko prest nago eta ojala oker egon,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Baina, horregatik esaten dut, azken finean, ados gaude hori kudeaketa eta kudeatzailearen ardura bat dela, azken finean según eta ze kudeatzaile izan hori horrela izango da, eta Bigarren gauza bat aipatu duzu zergatik geratu tarteko bidean, horri buruz ere hitzegin dugu batzordean, behin baino gehiagotan, zergatik? Hain zuzen, ere Pertsonaleko sailak ikaragarritzko lana daukadalako, gaur egun, hori dena bapatean martxan jartzeko eta esan duguna da bitartean tarteko zerbait jartzen dugula martxan eta gero Patronatuak edukiko duela bere abilezia beste pertsona horiek kontratatzeke etbr. Eta badakit pertsona horiek Zumaiako udaletxeak, Zumaiako herritarrak ordaintzen dietela Zumaiako udalaren langile guztiei, baino baita ere Zumaiar guztiek ordaintzen die gaur egun Kirolzerrek irabazten dituen mozkiniei. Gauza da, ze... eredu jartzen dugun martxan,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Ez, Gaur egun Kirolzerren mozkinak, bere erabiltzaileak eta klienteak ordaintzen dituzte. Ni ez naiz –sekula santan- ez naiz sartu kiroldegira ezerre egitera, ez igeriketa, ez ezer, naiz hortan –zero patatero- bat; nik ez diot ordaindu inor inoiz ezer Kirolzerri, ez, nik ordaindu dudan bakarria eta Kirolzerrek kobratutakoa da Zumaiako talde federatuei udalak ematen dien dirulaguntza pistak erabiltzeagatik, horixe bakarrik, Edozein modutara, beste gauza bat esan behar nuen....

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Barkatu, barkatu....

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Zure hitzetatik....

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Erantzungo dizut, erantzungo diot horri, baino hain zuzen ere guk planteatzen ari garen modeloan, Zumaia herritarrak ez diote inolako zentimorik ordainduko bertako langileei, baizik eta Patronatua berak ordainduko duela, bertako abonatuak ordaindu diotela bertako langileei,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Balorazioak aurrez egin daitezke? Ez, balorazioak ez, aurre iritziak dauzkagu, nik usten dut gureak, zorionez edo zoritxarrez, nahikoa finkatuak errealitatearen analisi batetan, balorazioak -a posteriori- hemendik hiru urteetara kafeak hartuaz, lehenago esan dudan bezala, beste gauza batek kezkatu nau ordea, esan duzu, Patronatuaren formula martxan jartzen duzutela hemengo kontratazio saileko edo langileen arduradunek hain lepo daudela lanez ezingo dutela hori martxan jarri, beraz, ulertzen dut, beste behin ere, lan aukeraketa horietan ez dela emango hori da –concurrència, publicidad, ez dakit zer, boletín oficial, concurso-oposición- eta horrelakorik, baizik eta Zumaia Lantzeneko dinamika berdintsua egiteko asmotan zaretela, alegia, al INEM, ó al OTEIC de turno deitu eta hortik aukeraketak egin pertsonalekoak?

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ez dakit, zergatik ateratzen duzun konklusio hori, nik ez dut halakorik esan?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Ez dakit, nola aipatu duzun, udalak lan gehiegi daukala jendeak kontratatzeke eta horregatik bideratuko dela hori Patronatuaren bitartez, horrek zer esan nahi du?

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ez, horrek esan nahi duena da, hori dena martxan jartzeko ba... Pertsonalak ikaragarritzko lana daukadala pleguak ateratzeko, boletinetara bidaltzeko, konkurrentzia egiteko etbr... baino konkurrentzia, noski, hori gauza denekin bezala derrigortuta gaudelako legea, vamos baino es que nik kontrakorik ez dut esan,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Dena den, azkenengo puntu honen inguruan esan nahiko nuke, ez dela berdina Zumaia Lantzeneko kontratazioak bideratzea, eta Zumaia Lantzeneko langileak kontratatzeke

erabili behar diren prozedurak eta Patronatu baten langileak erabili behar diren prozedurak, ez dauka zer ikusirik gauza bat bestearekin.

Patronatua ba... udalaren erakunde publiko bat da eta Zumaia Lantzenen langileak azken finean ba... Sozietate Anonimo batentzako lana egingo dute, eta orduan obligatuta zaudena edo erabili beharreko legedia beste bat da, ez dakit OTEIC de turno edo ICESA de turno izango den, garai batean ez ziren horrela, orain akaso ba... guk habilitate hori daukagu de turno bilakatzen ba... hemen kanpoko enpresa batzuk, usten dut, LKS ere de turno dela, baino bueno, eta bertan lan eskeintza publiko bat egin da, komunikabide edo tirada nagusia duten komunikabideetan publikatu da eta lan eskeintza publiko horren ondotik apuntatu diren guztiak ba... parte hartu ahal izan dute, Zumaia Lantzeneko Administrazio Kontseiluak erabakiko du nortzuk izango diren kontratatuak, eta aldiz Patronatuan ba... lan eskaintza publiko bat egin beharko da eta beste prozesu desberdin bat erabili beharko da.

Baino lehen erabili duzun argumentu bat, batzutan argumentuak ez dakit, extremo batetara eraman da eta isterismo puntu batetaraino ere eraman da, ikusten da balio duten edo ez, denek horrela funtzionatuko balukete, ondo egongo litzateke edo gaizki egongo litzateke? O sea, nik neure buruari ba... hau barkatzen diot, baino denok hau egingo bagenu, non bukatuko genuke?

Argumentu batzuk nik horrela irakurtzen ditudanean, ba... argumentuen ahuldadea edo desegokitasuna bilatzen dut, ez? Komentatu duzu, Patronatuko langileak, langile publikoak izango liratezkeela eta orduan beroiei bost zer gertatzen den Patronatu horrekin galtzen duen ala irabazten duen. Aldiz, enpresa pribatu batekoek ba... azkenean beroien lentejekin lan egiten dutela eta hor, ba... bai, ziurtatzen dela kudeaketa egokiago bat. Ez dakit, argumentazio hori extremora eraman da, funtzionario guztiak soberan dauzkagu, bai Osakidetzan, bai Eusko Jaurlaritzan, bai Diputazioan, bai Udaletxean, leku guztietan, zeren funtzionario izateagatik horregatik bakarrik ez dira langile onak izango eta ba... buelta emango beharko diogu egoerari eta ez dakit, milaka enpresa sortuko ditugu beroiek bai ondo kudeatuko dutelako, nik usten dut, argumentu hori ez dela justua eta argumentu horrek indarra edo... ez duela, izan daiteke ba... uste bat sozietatean nahiko zabaldua dagoena ba... bueno funtzionariaduak bere egia puntua ere edukiko du baino nik behintzat, ezagutzen dudanagatik nahiko pertsona entregatuak eta langileak dira eta espero dugu etortzen direnak gure ardura izango da, gurea, lana egingo duten edo ez guk kontua eskatu beharko diogulako eta gu lau urtetan hemendik pasatu eta joan, ez, gu hemen lau urtetan egon beharko gara, bai Pertsonaleko kontuak eta bai jarrera kontuak kontrolatzen eta kontratatzen ditugunak eta diru publikoetatik soldata kobratzen dutenei, lan eginarazi egin beharko diogu

eta lan eginarazi ondo gainera, hortan saiatzen gara eta aurrerantzean ere pentsatzen dugu bide hortatik jarraituko dugula,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bueno, gehiegi luzatu gabe, nik kafe batera gonbidatzen zaitut eta zuk isterika deitzen didazu,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Ez, ez, ez....

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Ze gusto txarra izan den, ez nago batere-batere isterika, ez? Eta funtzionarioak asko ezagutu izan ditut, eta ezagutzen ditut, eta benetan jende ona, azkarra, zentzuzkoa eta zintzoa asko. Eta hain zentzuzko, eta azkar, eta on eta arduratsu ez diren beste batzuk ere bai, ba... harakinekin, Lege Biltzar kideekin eta edozeinekin gertatzen den bezalaxe, hori ez da kontua, ez da dicotomía bat nik planteatzen dudana enpresa kudeatzaile onak dira funtzionarioak, ez dira, hori ez da, hori da demagogia hutsa egitea eta ez da nik hori esan dudana. Ez, ez, ez dut nik pertsonen balorazioa egiten, kontua da halako lege unibertsal bat badagoela, ez dakit, izango den dotorea edo ez den dotorea izango, baina nik usten dut nahikoa zabaldua badagoela eta dela nahiko mezkinoa gertatzen bada ere, norberaren dirua hobeto gordetzen dena denona den hori baino, printzipio orokor bezala, eh? Horrelaxe, horreraino,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Nik esan dudana da, zure argumentua modu isteriko batean edo extremo batetaraino forsatuz gero, ez, ba... hori guztia aplikatuko bagenio, ez dizut isterika deitu, inondik inora,

ALKATE-LEHENDAKARIA, Bueno, besterik gabe bozkatzera pasako gara, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Kontrakoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Kontrako botua, PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ.: A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Ezker-Batua Aralar?

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Talde mistoa?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua eta EA-k aldeko botua,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 8 botu (3 Talde Mistoa; 2 PSOE; 1 EB-Berdeak/Aralar; 2 EA)

Aurkako botuak: 4 botu (EAJ-PNV)

Abstentzioak: 0

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 8 votos (3 Talde Mistoa; 2 PSOE; 1 EB-Berdeak/Aralar; 2 EA)

Votos en contra: 4 votos (EAJ-PNV)

Abstenciones: 0

LEHENENGOA: KIROL PATRONATUKO ESTATUTUAK, ONARTZEA,

PRIMERO: APROBAR LOS ESTATUTOS DEL PATRONATO DE DEPORTES.

BIGARRENGOA: Erabaki hau legeak agindutako eran Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea jendeak horren berri izan dezan.

SEGUNDO: Publicar en legal forma el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para general conocimiento.

Ia, ez dut uste Tu es Petrus kantatzera joango naizenik, pentsatzen dudalako Eskari-Galderetan ez? Bateren batek zeozer esateko izango duela,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Nik ere gauza bat badaukat,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Josebak, banekien bazeukala, baina bueno...

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Guk dauzkagu, bi, baino motzak dira eh?,

Galdera bat da oso hitz gutxitan erantzun daitekeena eta da ikusi ditugu jarri dituzun Mugiko bizikletak kalean, egia da, oso bizikletak politikak direla, oso politikak geratzen direla gure kaleetan, jakin nahiko genukeena da, pentsatzen dut erantzuteko moduan izango zaretela ze kostu duen urtero, ez aurten bakarrik baizik datorren urtean, urtea bere osotasunean hartu ezkerro eta datua baldin badaukazute gutxi gora beherakoa izango duzue baita, orain artean martxan jarri den, proiektua martxan dagoen egun hauetan zenbat jende eskatu duen txartela,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Bukaeratik hasita, zenbat jende hartu duen txartela eta zer bidai kopurua eta bidai horien nondik norakoak, hileroko pasatuko dizkigute, hileroko edukiko dugu informazio hori, ez dira bi aste zerbitzua martxan jarri denetik, beraz, oraindik ez dauzkagu daturik eta bi aste... aurrenengo bi astekotato datuak ere nik usten dut ezaguratsuak ez liratezkeela izango eta

Kostuari erreparatuta, hemen ere hiru lanpostu sortzen dira, Zumaiarrak dira hirurak kontratatutak, kontratatu direnak eta kontratatu diren hiru horiek zeuden en -riesgo de exclusión social- edo... eta Emaus horrelako funtzio hori ere badu eta pertsona hauek kontratatze konpromisoa zuen eta kontratatu ditu.

Zerbitzuaren kostua 90 mila eurokoa da eta EVE-ren dirulaguntza bat jaso dugu % 60koa, beraz, 60koa dela usten dut, beraz, eta 60 ez baldin bada 60koa, beraz ba...90 mila eurotik 60a jaso baldin badugu ba... kostua izango da azkenean, udalari kostua ba... 33 mila euro edo hor nonbait,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Aurten eman duen dirulaguntza hori aurreikusten da urteroko dirulaguntza izango dela?

Eta beste galdera bat, Emausek, Emausen langileak dira? Edo udalak zuzenean kontratatutakoak?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Emausen langileak dira, eta aurreikusten diren, urtero lortuko den % 60koa ez, baino ez dakigu beste dirulaguntza batzuk eta beste portzentai batean ateratzen baldin badira lortzen saiatuko

gara, zerbitzu hau gure tamainako herrietan lehendabizikoetakoak izango gara ezartzen duguna baino iruditzen zaigu inbertsio interesgarria eta garrantzitsua dela beste mugikortasun eredu baten alde apostua egiteko, ez urtean ba... egun batez edo bitaz akordatuz kotxea etxean utzita baizik eta egunero-egunero beste aukera batzuk sortuaz eta beste komunikabide publiko batzuk ere sustatu nahian, horregatik tren estazioarekin lotura zuzena eta guri iruditzen zaigu aurtengoa diru laguntza potentea lortu dugula hurrengoetan ere saiatuko garela, baina dena den zerbitzu berri hau mugikortasun eredu berri baten beharra ere azaleratzen duela eta aurrera begira saiatuko gara mantentzen, herritarrek egoki erabiltzen baldin badute eta egoki esan nahi dut, bai txikizioak eta ez baldin badira behintzat gehiegi ugaltzen, espero dezagun ezetz, baino gertatuko dira noiz edo noiz eta baita ere egoki kuantitatiboki ba...Zumaiako tren estazioa erabiltzaileen kopurua gorantz egiten duela ikusten baldin badugu; hori da helburuetako bat eta helburuak betez gero ba... zerbitzua mantenduko dugu, noski,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Beste galderatxo bat, dirulaguntzari buruz komentatu duzu, Idazkari-Kontuhartzailearen irizpidea dela dirulaguntza guztiak Plenotik pasatzera, baina orain arte ekarri ditugun bakarrak Gizarte Zerbitzuetakoak dira, beste guztiak noizko? Hemendik pasatzeko?

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Gizarte Zerbitzuetako dirulaguntzari buruz ari zara? Dirulaguntzak generalean-orokorrean?

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Orokorrean hemendik pasa beharko direla, dela irizpidea Liobarena, baino orain arte bakarrik Gizarte Zerbitzuetakoak pasa dira, eta bai boletinean ikusten dira beste herritan, bai Euskarakoak, bai Kulturakoak denak ari direla pasatzen, orduan galdera da, besteak noiz pentsatzen duzuen pasatzea?

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Hitz egin da gaude; Liobarekin hitz egin da nago, eta intentzioa da behintzat poliki-poliki denak ekartzen hastekoa, gauetik egunera ezin dira denak batera ekarri baino Gizarte Zerbitzuetan hasi gara –siendo un poco más diligentes- baino beste Departamendu

guztiak ere badakite eta pentsatzen dut hemendik... bakoitzak bere arloa jorratzen duenean pixkat, eta batzordetik pasatzen direnean ba... hona ekarriko direla eta Josebak, badakit zeozer... zeukala esateko,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA.: Nik, neurea ez da ez Eskari-Galdera erantzun bat, azkenengo plenoan hemen likidazioa aurkeztu gabe zegoela oraindik, eztabaida egon zen likidazio kontu orokorra aurkeztu gabe, martxoaren 31a dela epea likidazioa aurkezteko, konkretuki ba... esan nuen askotan, askotan edo batzuetan behintzat, ni egon izan naizenean aurreko legealdian, hori PNV-k ere ez duela aurkeztu martxoaren 31an, eta ez neukan dudarik eta konprobatu dut eta noski ez dela horrela, eta M. Eugenia esan zidan, konkretuki hemen dago aktan, beti, bai, bai, esan zenidan begiratzeko hori, esan nizun ze fetxetan eta esango nizula eta beti presentatu izan dugula martxoko plenoan ez bazen, apirilekoan kontuaren itxiera, eta kontuak nik dakidala edo akordatzen naizela etxe hontan beti itxi izan dira martxoaren 31an, akaso oker nago, baino ez zait iruditzen, ba... nik bakarrik azkenengo hirurak begiratu ditut, zuk egindakoak 2006, 2005 eta 2004 eta oraintxen esango dizut:

2004ko likidazioa aurkeztu zen kontu orokorrarekin batera, esan nuen bezala 2005eko ekainaren 21ean batzordean, o sea aurten baino beranduago.

2005ekoa aurkeztu zen bera bakarrik, 2006ko maiatzaren 9an eta

2006koa, azkena, gainera hemen daukat akta aurkeztu zen 2007ko maiatzaren 29an eta bi egun lehenago hauteskundeak izan ziren, aurkeztu zen hauteskundeak pasa eta handik bi egunera, Hazienda batzordean, kontu orokorrarekin batera, biak batera, hori nahi nuen esan besterik gabe, argi neukan, baina bueno,

Eta gauzatxo bat bukatzeko, bakarrik, segundu bat, kasualitateak nola diren akta hau atera dudanean, 2006ko maiatzaren 29koa edo 2007koa, barkatu, nola diren kasualitateak, ba... okurritzen zait exekuzioa begiratzea eta hau kontuan hartu legealdi horretako azkenengo hazienda batzordea izan zela, legealdi horretako zuen legealdikoa nahi dut esan, eta beti leporatu izan diguzue urte hartan, 2007an inbertsioak % 35ean bukatu ziren eta ia zuek joan zinetenean ia % 35 zegoela eta guk ez genuela ezer egin, ba... hemen ikusten da inbertsioak zeudela 6,3an noski, hor fakturak faltako zirela ez daukat dudarik, baina dokumentu legal bakarra da azkenengo hazienda batzorde hori eta inbertsioak exekutatuta zeuden % 6,3an momentu hortan,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Eta zuek egindako aurrenengo Hazienda Batzordean, behin fakturak pasa eta gero, zenbatean zegoen exekuzio maila?

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Urte hartan, bukatu zen % 35ean,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Zuek ia agintea hartu eta egin zenuten aurrenengo Hazienda batzordean, tarte hortako fakturak pasata, zuek gastatutakoak ez, baizik eta kontabilizatu gabeko fakturak pasa zirenean kontabilizatzera, zenbatean zegoen exekuzio maila?

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Hori ez dut begiratu,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bale, ba... nahi baldin baduzu, ba... begiratu,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Ba... zuek begiratu dokumentu bat ekarri neri esaten egun hortan % 35ean zegoela, ze... hori argitaratu egin duzue askotan, nik ez dut ezer esaten, nik esan dut, egun hortan, zuek utzi zenutenean % 6,3an zegoela, hemen dago dokumentua,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bale, hori ez dakit, hala izango da, begiratu beharko dugu, nik eskatu nahi dizudana da ea zuen aurrenengo Hazienda Batzordean aurkeztu zenituztenean exekuzio mailak, zenbatekoa zen exekuzio maila?

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Ez dakit, begiratuko dut, begiratuko dut,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Hori ere begiratuko dugu, baina ea berriz ere begiratzen dugunean, gaizki irtetzen zaizuen, eh? Zeren hau gaizki irtetzen zaizue,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Ba berriz ere arrazoia emango dizuet, poz-pozik,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Eskerrik asko emategatik,

Bueno, bai Paloma,

PALOMA HEREDERO NEGREDO AND.: Perdón, sólo quería aprovechar esto para.. yo quiero pedir disculpas publicamente a todos los socialistas Zumaiarras, los socialistas Zumaiarras.

Porque era mi intención y mi deseo y mi obligación moral asistir a la concentración en repulsa del último atentado de la banda terrorista ETA en el que asesinaron a Eduardo Puelles, que tuvo lugar el pasado 20 de junio a las doce a la puerta del Ayuntamiento, pero un pequeño incidente, un percance que tuve en la carretera según venía hizo que llegase a Zumaia a las doce y diecisiete como alguno de vosotros pudisteis observar, pido nuevamente disculpas y lo lamento, Gracias

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Eskerrik asko Paloma eta besterik gabe eskerrik asko eta hurrengo arte.

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat ematen du, gaueko zortzirak eta hogeit hamar minutu direnean eta nik ordezkariak fedea ematen dut,

Alkateak,

No habiendo más temas que tratar, el Alcalde-Presidente dá por finalizada la sesión cuando son las veinte horas veinte minutos y yo el Secretario accto doy fé,

Idazkariak,